

Randy taldea

Suediako punka Oñatin
KULTURA, 22



Behobia-Donostia prestatzeko zer egin?

Musakolako mediku zerbitzuko adituek aholkuak eman dizkigute
KIROLA, 19

Kiki, Koko eta Kurruxkita

Umeak dantzan jarri zituzten
KULTURA, 20-21



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko iraiaren 11 • 3. urtea • 113. zenbakia • 0,90 euro

Preferente mailako ibarreko hiru taldeek huts egin dute liga hasieran

Aloñak eta UDAk etxean galdu zuten eta Mondrak Trintxerperen zelaian

ALOÑAK ETXEAN BI GOL
Bi jaurtiketa eta bi gol egin zituen Beriok; etxekoek gehiago merezi arren, esku-hutsik geratu ziren

AUKERA ASKO IBARRAN
UDARI markagailua kontra jarri zitzaion hasieratik; hala ere, aurre egin eta aukera onak sortu zituzten

GOLIK EZ MONDRAK
Arrasateko taldeak ez zuen zortea lagun izan; bi gol ikusgarri jaso zituen Trintxerperen zelaian

Debagoiendarrak ez dira gauza izan golik egiteko ligako lehenengo jardunaldian. Hiru taldeek galdu egin dute. Futbol mailari dagokionez, itxura ona eman dute, baina golik egin ezean, ez dago irabazterik. Denboraldi gogorra izango da aurtengoa Preferente mailako Debagoieneko taldeentzat. **5**



Aukera onak sortu zituzten arren, UDAK kontra izan zuen markagailua partidu guztian.

JOSETXO ARANTZABAL

Bizi arteko zigorren kontra

Etxerategen mobilizazio eguna deitu du datorren eguenerako

Asteburuan egindako agerraldien jarraipen moduan mobilizazio eguna deitu du Etxerat taldeak euskal preso politikoen eskubideak errespetatu daitezkeen. Justiziak presoen aurka hartutako neurriak salatuko dituzte eguenean zigorren luzapenak adibide direlarik. **5**

San Martin feria Bergaran

Iaz bezala, Elgoibarrera joan zen gazta lehiaketaren lehen saria **7**

Atzo bukatu ziren jaiak Gatzagan

Egitarauko berritasunek izan dute arrakastarik gehien **2-3**

Eguenean zozkatuko dituzte ortuak

Zozketa publiko bidez emango ditu Eskoriatzako Udalak Torrebaso gunean egokitu berri dituzten beste hamar ortuak. Zozketa 10:00etan izango da, udaletxean. Ekimenak erretiratuei aisialdirako aukera ematea du helburu, besteak beste. **8**

GEUREAN

- Bake prozesuaren geldotasunagatik pazientzia eskatu du gotzainak | 4
- Eusko Labeleko hegaluzea dastatu zuten Bergarako San Martin ferian | 7



Xabier Mugertza
oñatiarrarekin
Dorre Bikien
aurkako atentatuaz
jardun dugu | 6

ANDRAMAIXAK GATZAGAN



JOSETXO ARANTZABAL

II. herri afaria egin zuten gatzagarrek zapatuan. 130 pertsona inguru batu ziren pilotalekuan.

GATZAGAKO JAIK | BESTE URTE BATZUETAN BAINO JENDE GUTXIAGO HURBILDU DA HERRIRA

Berritasunek izan dute arrakasta handien aurtengo Andramaixetan

Eguenean hasi eta atzora arte ospatu dituzte gatzagarrek euren herriko jaiak, giro onean; txapelketa, kontzertu, herri afari, jolasparke, adardun eta guzti

Goreti Elortza

Eguenean 18:00etan hasi zituzten gatzagarrek herriko jaiak, Andramaixak. Eta lau egun hauetan, haur, gazte zein helduentzako ekitaldiak egon dira. Ondoko herrietako jendea ere hurbildu da herrira, baina bestetan baino gutxiago, eta gauean batez ere. Egunean zehar ez da jende askorik hurbildu, bai

na, hala ere, gatzagarrek jaiak primeran pasa dituztela aitortu digite.

URTEROKO LEHIA

Ama Birjina egunean, egubakoitzean, etorri ziren urtero bezala otxandiarrak herrira. Goizean egin zieten ongietorria, 11:30ak aldera. Bazkalostean, askotariko jokoetan euren abilezia erakutsi zuten bi herrietako lagunek.

Gauean, rock kontzertuak egon ziren herriko plazan eta goizaldera arte iraun zuten.

Zapatua izan zen jaietako egunik indartsuena. Goizeko 05etan adardunak eta *poney*-ak izan ziren goiztiarrentzat. Gaupasa egin zutenak zein beste zaleak elkartu ziren herriko kaleetan eta istripu larririk ez izan arren, egon zen etxera susto ederrarekin joan zenik. 11:30ean berriro atera zituzten zezen txiki eta *poney*-ak eta gaztetxoak oso gustura ibili ziren.

Herri kirol eta trialsin erakustaldia ere egin zuten zapatuan. Jende asko batu zen bi ekitaldietan. Arratsaldean, Toki Eder elkartearen mus txapelketa jokatu zen eta plazan gaztetxoen jolasparkea jarri zuten.

Andramaixetako egun nagusia borobiltzeko, gauean II. herri afaria egin zuten herritarrek Udal Pilotalekuan. Iaz egin zuten

Adardun eta 'poney'-ak gustuko dituzte herritarrek, goizean goiz edo geroago

Zapatuan egindako II. herri afaria arrakastatsua izan zen: 130 herritar inguru egon ziren

afaria lehengo aldiz eta izandako arrakasta ikusita, aurten ere egin dute. 130 pertsona inguru bertaratu ziren. Afalostean, Drindots taldearekin dantzaldia egon zen herriko plazan.

MENDI BIZIKLETA ETA PILOTA JAIK AGURTZEKO

Jaiak amaitzeko, IV. mendiko bizikleta zeharkaldia egin zuten atzo goizean, ume eta helduen kategorietan. Ondoren, herri poteoa egin zuten animatutako guztiek eta arratsaldean pilota partiduak egon ziren.

Jaiei amaiera emateko, Oñatiko Gora taldearekin dantzaldia egon zen arratsaldean. Horrekin esan zieten agur Gatzagako herritarrek aurtengo jaiak. Datorren urtean gehiago!

ANDRAMAIXAK GATZAGAN

• JAIK EMANDAKO IRUDIAK



OTXANDI KOEN AURKAKO LEHIA. Urteroko gonbidatuak dira otxandiarrak Gatzagako jaietan. Ama Birjinaren egunean etortzen dira beti, aurten egubakoitzean. Bi herrietakoak pilotan, sokatiran, txingetan eta makila-jokoan lehiatu ziren egubakoitz arratsaldean herriko pilotalekuan. Lehiakortasuna egon badagoen arren, giro bikaina sortzen da aurkarien artean. Sariak banatuta egon baziren ere, pilotan Otxandiokoak nagusitu ziren.



MUS TXAPELKETA. Toki Eder elkartean urtero izaten da mus txapelketa herriko jaietan. Zapatuan egin zuten, 16:00etan hasita. Aurten 30 bikotek eman dute izena eta lehenengo laurak sari-tu zituzten. Txapelketak 20:00ak arte iraun zuen eta txapeldunak Kaseli eta Rambo gatzagarrik izan ziren. Bikoteak txapela, Jakion produktu sorta eta dirua eraman zituen. Txapeldunorde, berriz, Luis eta Alberto izan ziren. Haiek dirua jaso zuten.



JOSETXO ARANTZABAL

JON SASIAIN |
KULTURA ZINEGOTZIA
"Trialsina, mendi bizikletako probak eta zezenak izan dira aurtengo jaietako berritasunak"

Goreti Elortza

Zer moduz joan dira jaiak?

Egia esan, betiko moduan joan dira. Hala ere, aurten jende gutxiago ibili dela esango nuke. Ulertzekoa da hori, beste herri batzuetan ere jaiak dira-eta. Egubakoitzeko kontzertuetara etorri zen kanpoko jende gehien. Eskerrak herriko jendeak ondo erantzun duen... Oso pozik gaude herritarrekin.

Berritasunik ere izan dute aurtengo Andramaixek.

Trialsin eta mendi bizikleta probak izan dira aurtengo berritasunak. Zezenak ere ekarri ditugu aurten. Egia esan, Gatzagan beti egon da ohitura, baina azken hamabi urteetan ez da zezenik egon. Herritarrek eskatu dute eta izan dute. Ekitaldi berriek oso erantzun ona izan dute.

Zer aipatuko zenuke jaietatik?

Trialsin eta herri kirolak aipatuko ditut alde batetik, jende ugari batu dutelako. Baina herri afaria izan da aipagarriena, nire ustez. 133 pertsona joan ginen eta benetan giro bikaina izan genuen. Drindots taldekoek ere gurekin afaldu zuten eta ondoren gustuko kantuek eskatu genizkien. Primerakoa izan zen!



JOLASPARKEA. Zapatu arratsaldean jolasparkea jarri zuten herriko plazan. Puzgarriak, ohe elastikoak eta lau gurgildun motor zeuden aukeran eta gaztetxoak gustura asko ibili ziren guztietan. Quad delakoekin pilotalekuan aritu ziren. Jende askorik ez zegoenez, ez zuten askorik itxaron beharrik izan. Eta batek baino gehiagok errepikatu egin zuten. Plazako txosnako musikaren erritmoan, gurasoak zoratu zituzten handik hona haurrek.



DRINDOTS TALDEA. II. herri afaria egin zuten gatzagarrek zapatuan Udal Pilotalekuan. 133 herritar izan ziren bertaratuak. Drindots taldekoek ere izan zuten herritarrekin afaltzeko aukera. Izan ere, 150 lagunendako zuten afaria prest. Afalostean, Drindots taldearekin dantzaldia izan zuten, 23:30ak aldera. Herritarrek eskatutako kantuek jo zituzten. Gustura ibili ziren gatzagarrik dantzaren eta kantuan goizeko ordu txikiak arte.

• JAIEN INGURUAN ZERA ESAN DIGUTE



NESKATILA KOADRILA |
GATZAGA

Puzgarri eta ohe elastikoetan ibiltzeko zain aurkitu genuen neska koadrila hori herriko plazan. Jaietarako buruz galdetuta, "oso ondo doaz, gustura gabiz!" esan ziguten. "Zezentxoak gustatzen zaizkigu gehien, barre asko egiten dugu-eta", aitortu zuten. "Gauetan kalera irteten gara dantza egin eta lagunekin egotera", kontatu ziguten. "Jaietako guztia dugu gustuko", bukatu zuten.



LAZARO |
GATZAGA

Mus txapelketan aritu zen Lazaro zapatu arratsaldean. "Normalean ez naiz txapelketara etortzen, baina lagun batek bikotekiderik ez zenez... Lehiakortasun handia dago, baina zeinek daki!".



XABI, MIKEL ETA ANAITZ |
GATZAGA

Lau gurgileko motorretan ibiltzeko zeudela eta urduri aurkitu genituen hiru mutilok. "Jaietatik zezenak gustatzen zaizkigu gehien, irteten gara batzuetan", esan zuten Xabik. "Gauetan ere irteten gara koadrilan lagunekin", esan ziguten. Jaietatik gutxien gustatzen zaiona zer den galdetuta, "ez dago gutxien gustatzen zaigunik, jaiak gustatzen zaizkigu!", erantzun zuten Anaitzek.



AINARA |
GATZAGA

"Txosnan egon naiz orain arte, baina gaur gauean irtengo naiz. Herri afarira joango naiz lagunekin urtero bezala", kontatu zigun. Ainarak txosnako txanda aldatu du afarira joan ahal izateko.

ZAINDARIEN EGUNA | AURTEN ERE JENDEZ BETETA ARANTZAZU



Gipuzkoako zaindariaren deia fededun askok erantzun diote aurten ere.

JOSETXO ARANTZABAL

Pazientzia eskatu zuen gotzainak Arantzazun

Bake prozesuaren geldotasunaren harira, pazientziaz gain fedea ere eskatu zion gizarteari

Jon Berezibar

Fedearen, agintari politikoaren eta aldarrikapenen bozgorailu izan zen zapatuan Arantzazu, Gipuzkoako zaindariaren egunean. Aparkalekuak beteta eta santutegia jendez lepo, Gipuzkoako gotzaina izan zen elizkizunaren gidari. Une politiko honetan bakea lortzeko "pazientziarekin baina modu aktiboan lan" egiteko dei egin zuen Jose Mari Ugartek. Arantzazu "fedeleku eta bakeleku" izanda, egungo egoera politikoan fedea eta lan egiteko gogo

izateko deialdia egin zuen elizkizunean, ezinegonetik eta eszeptizismotik ihes eginda.

Goizeko lehen orduetatik hasi ziren erromesak Arantzazura iristen eguerdiko meza nagusirako. Arantzazuko Amari zor dioten debozioaz, ehunka oñatiar zein gipuzkoarrek ekidin ezinezko hitzordua izaten dute irailaren 9 oro. Eta, giroa lagun, jendetza batu zen santutegian.

MINA ETA IZERDIA BAKERAKO Aurretik agintariak egin zuten agerraldia, ohiko hotsarekin. Iba-

retzek adierazpenik egin ez bazuen ere, hitza Miren Azkaratek, Lakuako Gobernuako eledunak, hartu zuen. Egungo "nahasmen politikoa gaiztatzeko gizarteari fedezko mezua bidali" eta esan zuen "pentsaezina" izango litzatekeela ezker abertzalea datozen hauteskondeetan eta eztabaida mahaietan ez egotea.

Gotzainak zapatuko sermoian pazientziarako dei egin zuen, prozesua geldoa bada ere. Hala, "minik gabeko bakea, izerdirik gabea, gurea den bakea ez" dela esan zuen Uriartek eta fededunei eskatu zien hausnartzeko norberak zer egin dezakeen prozesuan, bai indibidualki zein modu kolektiboan, "sinetsiz etorkizuna bakean benetakoa eta egingarria dela", eta adiskidetzeta eta itxaropena sendotu daitezkeela.

• ZELAN BIZI DUZUE EGUNA?



AMPARO ETA CARMEN | OÑATI

"Goizeko sei eta erdiak aldera Oñatitik irten eta oinez etortzen gara urtero Arantzazura"

"Garrantzi handia dauka egun honek oñatiarrondako; bizi guztia daramagu, gainera, etortzen, eta guretzat egun handia izaten da". Meza ostean harrapatu genituen oñatiar horiek eliza kanpoan eta erromesaldian etortzen direla kontatu ziguten: "Goizean goiz irteten gara Oñatitik, sei eta erdiak aldera, eta oinez igotzen gara Arantzazuraino". Itzulera, berriz, autobusez egin zuten, eta oso pozik zeuden Udalak antolatutako zerbitzuarekin, egun guztian gora eta behera ibili zen autobusa oso beharrezkoa zela iruditzen zitzaien-eta oñatiar horiei.



ANGELITA, CARMEN, MARIA, JOSE LUIS ETA TERE | OÑATI

"Elizkizuna ere ederra izan da eta gotzainak esandakoak kontuan hartzekoak dira"

"Oso egun ederra izaten da gaurkoa; gu, behintzat, urtero-urtero saiatzen gara etortzen, guretzat oso egun polita izaten da-eta", dio lagun taldeak, meza ostean gerizpean hizketan zegoela. Oinez igo ziren emakumeak Arantzazura eta goian, meza ostean, senarrak zain zeuzkaten autoekin atzera ere Oñatira itzultzeko. Gotzainak elizkizunean esandakoak kontuan hartzeko modukoak direla aipatzen zuten. Elizkizuna bera asko gustatu zitzaien.

• PROTOKOLOA ETA ALDARRIKAPENAK



AGINTARIEI HARRERA. Jaurlaritzako eta Aldundiko ordezkariak zabala egon zen zapatuan Arantzazun. Ibarretxe lehendakariarekin batera izan ziren Joxe Joan Gonzalez de Txabarrri, ahaldun nagusia; Leire Ereño, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria; eta Miren Azkarate eta Esther Larrañaga, Gobernuako ordezkari moduan. Ohorezko aurrekuarekin egin zieten harrera agintariak.



PRESOEN ESKUBIDEAK ERRESPESTATZEKO. Urtero moduan, euskal preso politikoaren senideek elkarretaratzea egin zuten elizako sarreran, handik agintariak igaro zirenean. Euskal presoak etxeratzeko oihuarekin, bai sarreran zein elizkizuna amaitu ostean ere, Etxeratekoek eskatu zuten estatus politikoa aplikatzeko eta bizi arteko zigorrak ezartzeari uztea.



JOSETXO ARANTZABAL

Ertzainen zaintzapean egin zuten egubakoitzeko elkarretaratzea Arrasaten.

Presoen eskubideak xantaia bezala erabiliak ez izateko

Datorren eguenerako, hilaren 14rako, mobilizazio eguna deitu dute, bizi arteko zigorren aurka protesta egiteko

J. B.

"Preso politikoei ezartzen zaizkien salbuespen neurriak eta kalera irtetear dauden presoak kartzelan geratzeko edonolako gezurrak" salatzeke, egubakoitzean kale agerraldietara batzeko Euskal Herri osorako dei egin zuen Etxerat taldeak aste hasieran. Hain zuzen ere, Arrasaten Seber Altube plazan egin zuten bateratzea. Bizi arteko kartzela zigorraren aurka, justiziak euskal preso politikoen aurka hartutako neurriak gaitzetsi -erre-

dentzioak, baldintzapeko askatasunaren ukazioa, akusazio berriak asmatzea... aipatu zituzte- eta haiek kaleratzea exijitu zuten bertaratutakoek.

DE JUANA ETA GAZTAÑAGA

Egubakoitzeko agerraldian modu berezian aipatu zituzten Iñaki De Juana eta Iñaki Gaztañaga presoen egoerak. Lehena abuztu hasiera ezker dago gose greban beste epaiketa baten zain; 2004an kalean behar zuen, ezarri zioten zigorra ordurako beteta zuen-eta. Eta Iñaki Gaztañagak ere

aurten behar zuen kalean. Hala, bizi arteko zigor berrien ezarpena Frantziako eta Espainiako estatuen jarrera eta borondatearen isla dela azaldu zuten egubakoitzean kaleetan solidarioek banatutako esku-orrietan. Hala, egungo egoerari begira, "ireki berri den prozesu politikoa baldintzatu nahi dute salbuespen hauekin eta xantaia politikorako erabili nahi dituzte estatuek presoak prozesu honetan".

MOBILIZAZIOAK EGUENEAN

Egubakoitzekoarekin batera, domekan Donostian manifestazioa egin zuten eta datorren eguenean mobilizatzeko deialdia ere egin du Etxerateg, euskal preso politikoen eskubideen defentsan, hain zuzen ere.

Haur dantzarien eguna ospatu zuten atzo Aretxabaletan

Herrikoekin batera Arrasate eta Oñatiko dantzari txikiak ibili ziren kalez kale dantza erakustaldia egiten

J. B.

Arratsaldeko alardearekin amaitu zuten atzo Aretxabaletan haur dantzarien eguna. Alardearekin eta osteko bolarekin, pozik joan ziren etxera egun osoan herriko kaleetan zehar dantzan ibili ziren 200 bat haurrak. Erdiak herrikoak bertakoak eta beste erdiak kanpotik etorriak, batez ere Arrasatetik, baina baita Oñatitik ere. Arrasatetik Lore Gazteak eta Txikitxu taldeak joan ziren eta Oñatitik, berriz, Oñatz. Erakustaldi polita egin zuten alardean guztiek batera. Hasi, 10:30ean hasi ziren, baina mokadutxoak jateko. Dantzan eguerdi partera hasi ziren gaztetxoak. Ondoren taldetan banatu eta herriko kaleetan egin zuten erakustaldia baz-

kalordura arte. Arratsaldean egin zuten dantza gehiago, baina kalejirak alde batera utzi eta plazan egin zuten hitzordua.

HAUR GUTXIAGO

Aurten ohikoan baino talde gutxiagok hartu du parte haur dantzarien egunean. Bergara, Antzuola eta Soraluekoak izan ohi dira normalean, baina aurten ezin izan dira Aretxabaletara joan Soralue eta Bergarakoak. Antzuolakoe, oster, bi urtean behin hartzen dute parte Aretxabaletako haur dantzarien egunean, eta aurten ez zitzaien egokitzten. Hala ere, nahiz eta gutxiago izan, neska-mutikoez gogo berarekin egin zuten dantza Aretxabaletako kaleetan, berari aurre eginez, eta ez zuten izerdi gutxi bota.



JOSETXO ARANTZABAL

Izerdi patsetan amaitu zuten haurrek arratsaldeko alardean.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Ume sahararrek ezin izan zuten zapatuan etxera itzuli hegazkin faltagatik

A.G.

Udako oporrak gurean igaro ostean zapatu ilunkeran etxera, Tindoufeko kanpamenduetara, itzuli behar ziren 250 haur saharar inguru Loiuko aireportuan ziren oraindik atzo 21:00etan, -erredakzioa ixteko orduan- Aljeriako hegazkin konpainiak hegaldia jarriko ote zien zain. Tartean gure ibarrean egonaldi egindako 15 ume. Arrasateko Nubi elkarteko kideen esanetan, ordu horretan umeak ontziratze gunera sartzeak ziren presio bide gisa. Izan ere, 20:00ak aldera Aljeriako Aerolineetako hegazkin bat Loiun lur hartu eta umeak erotea izan arren, ordu horretan, oraindik Aljeriatik irteteke zegoen.

ZAPATUTIK ZAIN

Zapatuan 19:00ak aldera irten behar zuten Aljeriako Aerolineetako bi hegazkinak umeok Tindoufera eroteko. Hala eta guztiz ere, hainbat ordu itxaron eta gero, batek baino ez zuten irten. Bestea agertu ere ez zen egin aireportura; matxura batengatik ez ei zen joan, Arrasateko Nubi elkarteko kideek azaldu duten moduan.

Hori horrela, Herrizaingo sailak Gurutze Gorriarekin eta DYArekin batera, autobusak antolatu eta Loiuko kiroldegira eraman zituzten gaua igarotzeko. Goizean, Fadurako kiroldegira eraman zituzten prestatuago dagoelako halako emergentzia kasuetarako.

300 mila euroko laguntza berria onartu du Aldundiak San Martin egoitzarako

Oñatiko egoitza eraberritzen ari dira eta lanak urte bukaera aurretik bukatuko dituzte

A.G.

Aldundiak beste 300.000 euroko partida onartu du Oñatiko San Martin egoitza eraberritzeko. Lanon kostua 1.462.127 euro da eta Aldundia 782.431 euroren kargu egingo da. Dagoeneko 482.431 euro inbertitu ditu foru erakundeak eta 2006-2007 urtealdian gainontzeko 300.000 euroak inbertituko ditu. Gainerako inbertsioa San Martin egoitza fundazioak egingo du.

San Martin egoitzan egiten diren lanak dira, besteak beste: hirugarren eta laugarren solairuak egokitu eta hirugarrenean, demenzia arazoak eta portaeradesorekaren bat duten 15 erabil-

tzailerendako tokia izango duen psikogeriatria unitate bat sortu. Unitate horrek 11 logela izango ditu. Eta guztiek bainugela izango dute. Gainera, unitateak jangela bat izango du, eta baita atse-denerako eta ekintzetarako gune bat, erizain gela, bi komun, profesionalen gela eta kontrolerako gunea ere.

Egoitzako iturrien esanetan, urtea amaitu aurretik bukatuko dituzte lanak.

ARAUDIA BETETZEKO LAGUNTZAK

Diru laguntza horiek Foru Aldundiak 2008. urterako duen planaren haritik datoz, Gipuzkoako egoitza guztiek indarrean dauden araudiek ezartzen dituzten baldintzak bete ditzaten. Baldintza horiek direla-eta, logelak handitu, oztupo arkitektonikoak kendu, banakako logela gehiago jarri, elektrizitate sistemak hobetu eta suteen aurkako neurriak jarriko dira, besteak beste.

Gaur 5 urte beteko dira Dorre Bikien aurkako atentatua gertatu zela. Bertan bizi zen orduan Xabier Mugertza oñatiarra, eta hantxe bizi

izandakoak gertutik jarraitzeko aukera izan zuen. Bada, urteurrenean, harengana jo dugu gertuko lekuko moduan.

XABIER MUGERTZA | IRAILAREN 11 BERTATIK BERTARA BIZI IZAN ZUEN

"Amerikarrek ezin zuten inolaz ere sinetsi euren herria eraso zutela"

J. B.

Oraindik gogoan daukazu due-la 5 urteko egun haiek?

Nire neskalaguna iritsi berria zen eta nik ordurako urtebete egin neukan han. Ni, ohi bezala, goizean lanera joan nintzen eta neskalaguna etxean geratu zen, hurrengo egunean lanean hastekoa zen-eta. Gogoratzen dudana da Euskal Herri-tik izan genituela berriak hasiera baten. Kuriosoa izan zen. Ni lanean nengoen ezer jakiteke eta neska etxean zegoen, lo, eta amak deitu zion. Niri lagun batek e-postaz jakinarazi zidan eta geroago hasi zen laneko jendea jakiten, eta telebista piztu genuen. Oso kaotikoa izan zen hura guztia.

Gertatutako guztia zuzenean jasotzen zenuten?


Telebistak zuzenean eman zuten. Hasieran nahasmen handia egon zen: bazekiten hegazkinak zirela, baina ez istripua izan ote zen, atentatua, zer hegazkin mota ziren... Bigarren hegazkinak jo zuzenean jakin zen atentatua izan zela.

Atentatuak gertatu eta gero gizarteko giroa gaiztotu egin zela ematen du. Kanpotar moduan nola bizi izan zenuen hura?

Lehenengo egunetan jendeak ez zuen gertatutakoa sinisten, beldur handia zegoen. Geroago, hainbeste aipatu zen *amerikanismoa* hasi zen pizten. Ni ez nintzen deseroso sentitu. Azken batean, nire lagun guztiak amerikarrak ziren eta lehenengo egunetan kontu handiarekin ibiltzen ginen. Gaian askorik ez sakontzen saiatzen zara, besterik gabe. Euren euzinezkoa zen euren herrian eraso bat jaso izana. Ez zuten ulertzen nola eraso zitekeen biztanleria zibila eta gorroto sentimendu handia piztu zen. Jendea bere senetik irtenda zegoen.

Hedabideek egindako lanaren zer iritzi duzu?

Alde guztietan gertatzen da, baina han ere iritzia manipulatzeke tresna itzela dira komunikabideak. Han prentsa kontserbadoreak indar handia dauka; telebistan, esaterako, Fox, CNN eta halakoak berehala saiatu ziren gauzak manipulatzen. Adibidez, telebistan ikusi ziren irudi batzuk arabiar batzuk ospakizunetan agertzen zirenak eta gero jakin zen Pales-



JOSETXO ARANTZABAL

Abenduan itzuli zen Oñatira Xabier Mugertza.

"Ez zuten ulertzen nola eraso zitekeen biztanleria zibila eta gorroto sentimendu handia piztu zen horren aurrean"

"Han prentsa kontserbadoreak indar handia dauka eta berehala hasi ziren gauzak manipulatzen"

"Hala ere, kultura kritikoa handia dago, nahiz eta askok ematen dieten guztia irentsi"

tinako aspaldiko irudiak zirela, baina ez zen ezer argitu.

Hemen bada goi-amerikar inozaren estereotipoa. Hori hala da?

Askoz ere aniztasun handiagoa daukate AEBek. Gertatzen dena da oso herrialde handia dela, eta New York ezin da alderatu gainontzeko estatuekin: jende oso irekia da, asko ibili eta ikusitakoa, eta ideiak garbi dituzte. Bada goi-amerikararen ehuneko bat kultura handirik izan ez edo oso ideia zurrinak dituena; eta horiek ematen dieten guztia irensten dute. Hala ere, kultura kritikoa handia dago.

Gauzak aldarazteko moduko oihartzunik badu masa kritikoa horrek?

Iritzi publikoan eragin handiena duten hedabideak kontserbadoreak direlako. Oso gizarte nazionalista da, historia oso motzekoa eta Kaliforniako batek, New Yorkeko batek edo Floridako batek komunean duten gauza bakarra amerikarrak direla da; horregatik daukate, agian, amerikar izatearen hain sentimendu gogorra.

LAN ESKAINTZA

Bergarako
Depor tabernan,
ZERBITZARIA
behar da.

Interesatuok deitu:

629 26 88 51
943 76 01 51

UGARTE

ARAZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

SAN MARTIN JAIAK | SAN MARTIN FERIA EGIN ZUTEN BERGARARREK ZAPATUAN



MONIKA BELASTEGI

51 baserritar eta gaztagilek hartu zuten parte fruta, barazki eta gazta lehiaketetan.

Eusko Labeldun hegaluzea odolostearen orde

Antzuola, Martutene eta Elgoibarrera joan ziren fruta, barazki eta gazta lehiaketako lehen sariak

Monika Belastegi

Fruta, barazki eta gazta azoka egin zuten Bergaran zapatuan. Baserritarren lana bultzatzea helburu duen ferian lehiaketa ere eginen dute: frutari dagokionez, sei lagunek hartu zuten parte; barazki ekoizleen kasuan, hamabik eta gaztari dagokionez, Idiazabal izendapendun 33 gaztagile aritu ziren nor baino nor gehiago. Aurreko aldietan lore lehiaketa ere egin izan dute, baina aurten inork ez du eman lehiaketa horretarako izenik.

Hiru gunetan banatuta egon zen azoka: San Martin eta Muni-be plazetan eta Seminarioko jolas-

lekuan, hain justu ere. Eguzkiak gogor jo zuen eta beroa ez zen makala izan. Horixe izan daiteke jende andanarik ez egoteko arrazoia. Edota, akaso, "oporren osteko lehenengo asteburua izatea eta jendeak oraindik opor-haizea izan eta kanpora joan izana", udal arduradunen esanetan. Jende gehiago ala gutxiago, giroa aparta izan zen eta herritar asko poltsa bete barazki, fruta, ezti, euskal pastel... itzuli zen etxera.

Eguzkitan egon barik, gazta lehiaketa San Martin plazatik osoko bilkuren aretora eroan zuten zapatuan. Hantxe batu ziren lehian sartutako 33 gaztak eta epaimahaiko bederatziki kide-

ak. Osterantzean, ez da aurten-goan aparteko nobedaderik izan ez fruta, ez barazki ezta gazta lehiaketan ere.

EUSKO LABELDUN HEGALUZE PINTXOAK

Hegaluze dastatzea izan da aurten-go azokaren berritasunetako bat. Aurreko urteetan herriko harakinek emandako odoloste eta txorizo dastatzea egin izan da, baina aurten, itsas aldera jo eta Eusko Labeldun hegaluzea ekarri zuten zapatuan. German Muruamendiarazek, Kalitatea Fundazioko zuzendariak, azaldutako motuan, hegaluzea ekarztearen helburua izan da "haren ezaugarrien berri ematea eta identifikazioak duen garrantzia azpimarratzea, eta bertako arrantzaleak bultzatu". Hala, Munibe plazan plantxak egokitu eta han erretako ehunka hegaluze pintxo saldu zuten.

• FERIAKO IRABAZLEAK



FRUTA LEHIAKETA. Sei baserritarrek hartu zuten parte lehiaketan. Lehenengo saria Bidaurre baserriko Kontxita Izagirre antzuolarrak jaso zuen; bigarrena, Sonia Isasi gernikarrak; eta hirugarrena, Urtza Sarrionandia igorrearrak.



BARAZKI LEHIAKETA. Hamabi lagunek hartu zuten parte eta irabazlea izen zen Martuteneko Olatxo etxeko Jose Manuel Zabalegi; bigarren saria jaso zuen Lapatza baserriko Tomas Larrañaga antzuolarrak; eta hirugarrena, Jose Lonbide aretxabaletarrak.



GAZTA LEHIAKETA. Idiazabal izendapeneko 33 gaztagilek hartu zuten parte. Lehen saria jaso zuen Elgoibarko Jesus Ansolak-iaz ere berak eroan zuen; bigarrena, Idiazabalgo Landaburu elkar-teak; eta hirugarrena, Olabarriko Santiago Etxezarretak.

• EGUNAK EKARRITAKOAK



KOLORE BIZIA ERAKUSMAHAJETAN. Barazki eta fruta postuek kolore ezin biziagoa eman zioten San Martin plazari. Guztira 18 baserritarrek eroan zituzten euren soroko produktuak Bergarara. Izan zen zer erosi eta dastatu eguerdira bitartean.



EUSKO LABELDUN HEGALUZZEA. Odoloste eta txorizo dastatzea beharrezkoa, hegaluzea dastatzeko txosna jarri dute aurten Kalitatea Fundazioak eta Udalak. Muniben bertan erre eta ehunka pintxo eman zituzten txosnako kudeatzaileek; hots, Aritzeta abesbatzako kideek.



PERRETXXIKO ERAKUSKETA. Askok otarrean sartuta nahiko lituzketen perretxikoak ikusteko aukera ere izan zen San Martin plazako arkupeetan. Dozenaka perretxiko mota jarri zituzten ikusgai. Aurten estreinakoz egin dute erakusketa.

Albiste izango da

ESKORIATZA | 10:00ETAN UDALETXEAN

Eguenean zozkatuko dituzte erretiratuendako beste 10 ortuak

Eguenean, hilak 14, zozkatuko ditu Udalak erretiratuendako presatu dituen hamar ortuak. Zozketa publikoa egingo dute 10:00etan, udaletxean. 70 eta 80 metro koadro artean dute zozkatuko dituzten ortuok eta 60 urtetik gorako aurre-erretiratu edo erretiratuei zuzenduta daude.

2004. urtean ekin zion Udalak nagusiendako ortuen ekimenari. Orduan 19 lur zati egokitu zituen Torrebaso izenez ezagutzen den zonan. Horrekin batera orturako materiala gordetzeko etxola egin zuten, eta baita atseden hartzeko gunea ere.

ARRASATE | URRIAREN LEHENETIK AURRERA

Urriaren San Kristobalgora nitxoetako gorpuzkiak aterako dituzte

Urriaren lehenetik aurrera San Kristobalgora hilerriko nitxoetako gorpuzkiak aterako dituztela eman du aditzera Udalak. Bidalitako oharrean dionez, 1996. urteko lehenengo seihilekoan lurperatuak izan ziren hildakoen gorpuzkiak dira aterako dituztenak.

Era berean, aditzera eman dute gorpuzki horiei beste irteera bat eman nahi bazaie irailaren 30erako abisatu beharko dutela udaletxean interesa dutenek. Hala, esandako epearen barruan ezer jakinarazi ezean gorpuzkiok San Kristobalen dagoen hezurtegi komunera eroango dituztela ere aurreratu du Udalak esandako oharrean.

EUSKAL HERRIA | HILAREN 16AN JOKATUKO DA

III. grafiti lehiaketarako 33 lan jaso dute Topagunekoek

Euskara Elkarteen Topaguneak, Galtzaundi euskara taldeak eta Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak Euskal Herriko grafiti lehiaketa antolatu du hirugarrenez. Dagoeneko bukatu da lanak bidaltzeko epea eta aditzera eman dutenez, 33 lan jaso dituzte. Horietatik guztietatik hilaren 16an Tolosan jokatu den lehiaketan marraztuko diren hamar lanak ere aukeratu dituzte eta Topaguneko kideen esanetan, "epaimahaiak ez du lan makala izan auke-raketa egiteko orduan".

Horren guztiaren berri emateko, eta Tolosako lehiaketaren egitaraua azaltzeko asmoz prentsaurrekoa egingo dutela aurreratu dute Topaguneko kideek. Bihar, martitzena, izango da hori, Tolosako kultura etxean.

ELGETA | 'DEBARROA; MENDITIK ITSASORA' KANPAINA

Landa ingurunea bizirik dagoela gogora ekarriko du lehendakariak

Debarroa; Menditik itsasora kanpaina aurkeztuko dute eguenean Elgetako Espaloia kafe antzokian. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia izango dira aurkezpen ekitaldian, besteak beste. Debagoieneko Deba Garaia eta Debarreneko Debemen nekazarien eta abeltzainen elkarteek jarri dute abian. Asmoa da bi eskualdeetako gizartea landa inguruneaz sentsibilizatzea. Alegia, herritarrei ohartaraztea landa ingurunea bizirik dela eta guztion laguntza behar duela. Ikastetxeetan banatzeko material didaktikoa ere kaleratu dute.

ESKORIATZA | BIHAR ERE EGINGO DUTE BATZARRA

Santa Marinako lur-jabeekin batuko dira gaur, eraisten hasteko

Vivesa-Orubide eta Udala batzartu egingo dira gaur eta bihar Santa Marinako lur-jabeekin, kalte-ordainak eman eta dagozkien aktak sinatzeko. Behin lur-jabeek kalte-ordainak ordaindu eta aktak sinatu eta gero, Udalak Amenabarrekin sinatuko du ingurua urbanizatzeko hitzarmena. Handik gutxira, eraisten lanekin hasiko dira. Hain justu ere, Arbiñosteko etxe batzuk, bi lantegi zahar, beste hiru etxebizitza, txabola batzuk eta hainbat ortu botako dituzte lanok egiteko.

Udalaren asmoa da zona hartan etxebizitza tasatuak egitea eta ingurua berrurbanizatzea.

Hitzorduak



ZABALIK DAGO MATRIKULAZIO EPEA IBARREKO HELDUEN ESKOLETAN | Alfabetatzea, kultura orokorra, hizkuntzak... irakasten dituzte

Bost Helduen Heziketa Ikastetxe (HHI) daude Debagoienean, eta denetan dago zabalik izenemate epea. Bergaran eta Oñatin, etzi, eguaztena, bukatzen da epea; Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, berriz irail osoan dago zabalik. Argibide gehiago duzue honako telefonoetan: 943 77

11 72 (Arrasate), 943 78 35 77 (Oñati), 943 76 44 52 (Bergara) eta 943 79 88 50 (Aretxabaleta).

Alfabetatzea, kultura orokorra, hizkuntzak, etorkinendako eskolak... Hamaika dira aukerak. Lagun berriak ere egin daitezke. Argazkian, Bergarako HHiko iazko taldea agertzen da.

ARETXABALETA |

• Lotura afektiboen gaineko ikastaroa emango dute

Emakumeei zuzenduta, lotura afektiboen gaineko ikastaroa emango du Pepa Bojo psikologoak irailaren 20tik azaroaren 29ra, eguaztenetan. Izenematea zabalik dago Gizarte Zerbitzuetan, 943 71 18 62 telefono zenbakian.

ARRASATE |

• Biodantza ikastaroa antolatu du yoga elkarteak

Biodantza ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak urrirako, eguaztenetarako. Argibideetarako, deitu 679 44 12 29 telefonora.

• Boluntario lanaren gaineko ikastaroa emango dute

Boluntario lan egin nahi dutenek bost eguneko oinarrizko ikastaroa izango dute irailaren 22tik aurrera. Hezkide eskolak eta Udalak antolatu dute.

• Ekin Emakumeak elkarteak hainbat ikastaro prestatu ditu Ekin Emakumeak elkarteak eskulan, orratz-lan eta hip hop-funky dantza tailerrak antolatu ditu. Irail bukaeran hastekoak dira. Izenematea zabalik dago 943 79 83 70 / 651 70 79 36 telefonoetan.

• Buruko Osasun eta Tokikomania Laguntzailea Buruko Osasun eta Tokikomania Laguntzailea delako

ikastaroa emango du Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak. 70 ordu teoriko eta 90 praktiko izango ditu. Argibideetarako, deitu 943 79 03 14 telefonora.

• Hainbat ikastaro aukeran Emakume Txokoan

Denetariko ikastaroak antolatu ditu Emakume Txokoak. Izenematea zabalik dago, eta argibideetarako telefono zenbakia da 943 79 41 39.

BERGARA |

• 1948an jaiotakoek afaria egingo dute hilaren 23an

1948an jaiotakoak elkarrekin afaltzeko batuko dira hilaren 23an, zapatua. Frontoiko plazan batuko dira, 21:00etan, eta Zabalan afalduko dute. Herri-autobusa egongo da. Izenemateko, sartu 50 euro Euskadiko Kutxako euren kontuan.

• Etorri berriendako euskara ikastaroak antolatu dituzte

Euskara ikasten hasteko 60 orduko ikastaroa antolatu dute Udalak eta Udal Euskaltegiak. Euskal Herrira etorri berriendako egokituta dago. Izenematea zabalik dago hilaren 22ra arte honako telefonoetan: 943 77 91 31 (Udaletxea) edo 943 76 44 53 (Udal Euskaltegia).

• Aranzadi ikastolako ikasleek afaria egingo dute Aranzadi ikastolan batxilergo egin dutenek bazkaria egin-

go dute hilaren 23an, ikastolan bertan. Izenemate epea zabalik dago irailaren 19ra arte. Txartelak idazkaritzan hartu behar dira, 10 euroko fidantza ordaindu ondoren.

DEBAGOIENA |

• Garbiguneek ordutegi berria izango dute aurrerantzean

Arrasate, Bergara eta Oñatiko garbiguneetako ordutegia honakoa da aurrerantzean: 09:00-13:00 eta 15:00-19:00 (aste-gunetan), 09:00-13:00 (zapatuetan, orain arte bezala) eta domeka eta jai-egunetan, itxita, orain arte bezala.

OÑATI |

• Jose de Azpiazu musika eskolan izena eman daiteke

Hilaren 15era bitartean egin daiteke matrikula musika eskolan. 5, 6 eta 7 urteko umei dago zuzenduta deialdia.

• Irudi digitalen gaineko ikastaroa emango dute

Irudi digitalak tratatzen ikasteko aukera izango da hilaren 13an, eguaztena, KZgunean, 16:30-18:30.

• Izena eman daiteke dagoeneko udal euskaltegian

Udal euskaltegian matrikula egiteko aukera dago irailaren 20ra bitartean, 09:00-13:00 eta 16:30-19:00 ordutegian. Argibideak: 943 78 24 96 edo euskaltegia@oinati.net.

Gura bezain laster

*Itsaso zakarra izango ote, obatuak...? Kontxako
banderaren giroa bizitzeko irrikan nago. Laster
batean.*

Lurraldebusek, Debagoieneko autobus zerbitzu berriak, **50 minututan** eramango zaitu **Bergaratik Donostiara**.

LURRALDEBUS



Gipuzkoa hiria
gero eta hurbilaqo!

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

- **Bedoñako bidea egoera txarrean, lanak direla eta.** Irakurle batek azaltzen duenez, autobideko lanak direla-eta Bedoñara igotzea edo handik jaistea "gero eta arriskutsuagoa" dabil bilakatzen. Lanak eragozpen asko dabilzala sortzen esaten du irakurleak, eta, "gainera, atzerapenekin dabilza, uda osterako amaituta egongo zirela esan zuten-eta". Bedoñara igotzeko maldaren hasierako zatiaren egoera ikusten du okerrren irakurleak. Hark dioenez, "lanek, seinaleztapenak, kamioien joan-etorri etengabeak eta bazkalorduan Bedoñako jatetxera igotzen diren langileek sortzen dituzten pilaketa eta trabak gero eta gogaikarriagoak dira eta ezer ez da egiten arazoa arintzeko".



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Sarean harrapatuta

Langabeziak gora egin du udan. Sumatu duzu?

Espainiako Enplegu Institutuan (INEM) erregistratutako datuen arabera, aurtengo abuztuan uztailean baino langabe gehiago izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan: 2.553 pertsona, hain zuzen ere; aurreko

hilabetean baino %3,35 gehiago. Langabeziaren gorakada hori igarri ote duten galdetu dute *Goiena.net* webguneko eztabaidan. Hemen bildu ditugu horietako erantzun batzuk.

ENPRESEK IRABAZI ETA LANGILEAK GALDU

Horrelako adierazpenek barregura eta haserrearen arteko tentsioa eragiten didate. Esan eta esan dabilza krisia dagoela, baina gero entzuten dituzu enpresa, banketxe eta horrelakoek zelako irabaziak izaten dituzten urtero eta beti zifra izugarriak dira. Eta hor tartean langilea beti galtzen irten behar. Beste batzuk diru apur bat gutxiago irabaziko balute, ez genuke horrelakorik jasan beharko.

Inaxio / www.goiena.net

URTEKO SASOIAREN ARABERAKO IZATEN DA

Nik ez dut sumatu langabezia asko igo denik nire inguruan. Egoera nahiko antzekoan mantentzen garela uste dut. Beti egoten da lan gehiago edo gutxiago. Hau da, denboraldika doa kontua: batzutan lanpostu berriak sortzen dira sasoi baterako lan asko dagoelako; beste enpresa batzutan, ordea, lan gutxi dagoelako ez dituzte langile askoren postuak mantentzen.

Miren / www.goiena.net

UDARA ARTE EGITEN DUTE LAN ASKOK

Nik igarri dut inguruan. Lagun askok abuztura arteko kontratua zuten herriko enpresa batean;

urte hasieran kontratatzen dituzte udako oporrak arte, eta horrela egiten dute urtero. Orain langabezian egon beharko dute leku beretik edo beste nonbaitetik deitu arte zain.

Nerea / www.goiena.net

ABUZTUAN KONTRATUA ETETEN DUTE ASKOK

Enpresa askok egiten dute abuzturako langileei kontratua eten, horrela, abuztuan jai egiten dute-nez, hilabete hori ez ordaintzeko. Horrelakoak eginda norma-

la da langabeziak gora egitea. Ez da oso etikoa hori egitea, baina enpresa askotan urteroko kontua izan ohi da.

Roberto / www.goiena.net

KOOPERATIBA EZ DOA BETI BEZAIN ONDO

Hemen, Debagoiengan, kooperatibak agintzen du, eta ez, beste leku askotan moduan, turismoak. Horrenbestez, Fagorren gorabeheren zain ibiltzen da jende asko inguruan. Eta, aspaldian badirudi enpresa horretan gauzak ez dabilzala orain urte batzuk moduan.

Lanien / www.goiena.net

UDAKO LANAK AMAITUTA LANGABEZIAK GORA

Enpresa guztiak beti dabilza berdin lan kontratuekin gora eta behera. Abuztuan, oporrak amaitzean denak kalera joaten dira eta uda hasieran langabeziak behera egitea du. Eta langabezia jais-ten denean ere ezin gara guztiz pozik egon. Ze egoeratan egoten da orduan langilea? Uda bukatu eta langabezia beti igotzen da. Normala da hori. Ordezkapenak egiten edota udako lanetan ibili diren guztiei kontratua amaitzen zaie eta horiek guztiak kalera joanez gero langabeziak gora egiten du.

Goretti / www.goiena.net

www.goiena.net

INEMen arabera, langabeziak gora egin du udan; sumatu duzu gorakada hori?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Presoen eskubideak eztabaidagai izan beharko lirateke baketzerako eztabaida prozesuan



IRATI ARANTZABAL |
ETXERAT

Egoera politikoa edozein delarik ere, presoen gaia ez dago prozesuarekin lotuta. Presoen egoera aspalditik dago konpontzeko eta haien eskubideek bermatuta egon behar dute, gure senideak ez direlako xantaiarako truke-txanpona; edozein delarik ere egoera politikoa.



JOSE MARI ETXANIZ |
PRESO OHIA

Presoen kolektiboa bahiturizat hartzen da eskubideak dituztela ahaztuta. Presoen eskubideak ez daude koiuntura politikoa- ren mende eta agintari-ek ez dituzte euren legeak betetzen. Tranpa egiten da presoak negozi-azioarekin lotzen eta ez zaizkie aitortze eskubide urraketak.



KOLDO PEREIRA |
EAJ

Alderdiak behin eta berriz esan du komenigarria dela disper- sioarekin amaitzea eta horrek prozesutik aparte egon beharko luke. Presoak gerturatzea Gober- nuaren esku dago eta gure alder- diak egin dezakeen bakarra pre- sioa da; negoziaketako gai bat izango da, hala ere.



BLANCA RONCAL |
PSE-EE

Gai batzuk ezin dira testuingu- rutik atera eta presoen egoera ere alde bietako elkarrizketaren zati bat da. Alderdi Sozialista edozein gai eztabaidatzeko prest dago, baina bi mailatara egiten dene- an, noski. Zalantza barik, pre- sora elkarrizketa horietako zerrendako gaietako bat da.

Egunkarietako harribitziak

GUNTER GRASS

"Gaztea nintzen, etxetik joan nahi nuen eta oinarrian ados nengoen". Horixe dio Grassek *El País*-ek egindako elkarrizketan, 17 urterekin Waffen SS erakundean sartu zela azaltzeko orduan. Hala ere, gehitzen du gerra osterarte ez zela kontziente izan krimenez eta horrek "lotsa sentimentua" sorrarazi zuen bere barruan.

'El País'
2006-09-10



Zorroztailea



Gaizki-ulertuak

Elkarrizketa "inposaketarik gabe" errezetatu ohi da: hau da, ETA bertan behera geratzen baldin bada, indarrean dauden legeak ere bertan behera geratu behar dira; grabitatearena eta beste bizpahiru izan ezik. Ba ez, aizu, ez dadila gaizki-ulerturik egon: batzuek bai, nahi dugu, Zuzenbide Estatuaren eta Konstituzioaren lege-inposaketak indarrean jarrai dezan.

Fernando Savater
'El País' | 2006-09-08

eta hipodromoak ateratzen zituen harira, eta artikulua pottokak aipatu barik bukatzen zen. Irakurleak, hemengo zaldizale batek pottokak ez ezagutzea sinistu ezinik, zer pentsatu ez zekiela amaitzen zuen: Irlanda eta Euskal Herria inola ere lotzea ez zela komeni ote zen kontua? Edo gure pottoka apala erreferentzia "lokalegia" iruditzen al zitzaion nazioarteko pentsalariari? Gaizki-ulerturik gerta ez dadin -eta filosofoa izan beharrik ez dago horrenbeste jakiteko-, garrantzizkoena elkar ulertzeko gogoia izatea da. Guztion borondate ona mahai gainean beharko lukeen garaian, etsigarri samarra ere bada lanbidez eta izenez "jakituriaren maitale" omen den bat holaxe ikustea, egiaren bere puskatxoari heldu-heldu eginda, gelako jostailua hartuta "nirea bakarrik, nirea bakarrik!" oihuka ari den haurtzaindegiko umearen moduan.

BOST SENAR-EMAZTE BANATZEN DIRA GIPUZKOAN EGUNERO

Angela Magaz psikologo eta familia terapeutaren arabera, "bizitza osorako amodioa existitzen da, baina gaur egun gero eta maizago izaten dira bikoteen arteko arazoak". Datuek berretsi egiten dute Angela Magazek esandakoa: 2004an 1.586 senar-emazte banatu edo dibortziatu ziren Gipuzkoan. 2005ean %20 igo zen kopurua: 1.903 bikote banatu ziren. Familia

Politikarako Institututuko presidente Eduardo Hertfelderren arabera, egoera kezagarria da; izan ere, azkeneko bost urteetan bikoiztu egin dira banatze zein dibortzioak. Gipuzkoan bost izaten dira egunero (hiru laurdenak dibortzioak dira). Bestalde, 2005ean izan ziren 1.903 banatze eta dibortzioetatik, %70 modu adiskidetsuan egin ziren.

'El Diario Vasco'
2006-09-10



Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-IX-10

Gerardo Markuleta

Batzuetan, hutsaren hurrengo ematen duen xehetasun bat, detale txoro bat -beharbada oso grafikoa delako, edo bereziki esanguratsua egin zaizulako-, gogoan iltzatuta geratzen zaizu, zergatik zehatz-mehatz ez dakizula.

Halaxe gertatu zitzaidan behin goiko aipuaren egileak aspaldi idatzi zuen erreportaje bateko zertzelada batekin. Filosofo donostiarra Irlandara aldera egin zuen bidaia, Madrildo egunkari baten zat bere ibilaldiaren kontakizuna egiteko. Artikuluan aurrera, mendian gora egindako txango batean ikusitako zaldi ttiki batzuk aipatzen zituen. Arraza berezikoak, mendi aldean erdi basati bizi zirenak. Irakurtzen ari nintzela, gogoan nerabilen: "Esango du, ba! Ez al da donostiarra?". Ez, bada. Filosofoak bere zaldi-lasterketa

"Gaizki-ulerturik gerta ez dadin -ez da filosofoa izan behar hori jakiteko-, garrantzizkoena da elkar ulertzeko gogoia izatea"

"Etsigarri samarra ere bada lanbidez eta izenez "jakituriaren maitale" omen den bat holaxe ikustea"

Egunkarietan irakurri dugu

'El Diario Vasco'

ELKARRIZKETA

"Etorkinen erregularizazioa ez da dei efektua, jaioterrien pobrezia baizik. Gure politika globalek ez dute arrakastarik izan estatu haiek sendotzeko, boterea emateko, hezteko... orduan. Oso ahulak dira eta bulztatu egin behar ditugu, laguntzak handitu egin behar ditugu. Hala, irakasleei... soldata ordaintzeko aukera emango diegu".

Louis Michel
2006-09-10

'Gara'

EUSKAL PRESOKA

"Jose Inazio Gaztañaga neurri hau ezarri dioten lehena izan da. Loteria ez ezik, gutzia tokatzen zaigu. Txar guztia. (...) Berak, Parotekin hasi zirenean, gertatuko zirenen zain egon behar genuela esaten zuen, baina gordin ikusten zuen kontua. Kartzelatik irtetea zegokion data baino lau egun lehena esan zioten han jarraitu behar zuela".

Migel Gaztañaga
2006-09-10

'Noticias de Gipuzkoa'

ELKARRIZKETA

"Komenigarria izan daiteke irekita dagoen prozesu politikoaren ondotik etor daitekeen euskal marko juridiko-politikoaren argitzea. Enpresaburuok etor daitezkeen aldaketak onartuko ditugu, baldintza demokratikoetan oinarritu badira. Aldaketok demokratikoak eta gizarteak onartutakoak badira, haietara moldatuko gara".

Eduardo Zubiaurre
2006-09-10

'Berria'

ELKARRIZKETA

"Urte asko pasatu dira lan munduan ahalegin bateratu bat egin gabe, eta enpresaburuak eta sindikatuak euskararen aldeko jarrera batera ezarri gabe. (...) Lan mundua oso garrantzitsua da eta askoz ahalegin handiagoa merezi zuen. Lan mundua euskaldundu ezean, ez dago euskara normalterik. Bete-betean heltzeko unea da".

Xabier Mendiguren Bereziartu
2006-09-10

KIROLA

- Diego Barrio munduko trial txapelduna Gatzagan izan zen zapatuan | 14
- Arrasateko Besaide taldekoek hiru tenpluen ibilaldia egin zuten | 16



Unai Iparragirre
azpeitiarra
nagusitu zen
Oñatiko 48. Mikel
Deuna sarian | 16

PREFERENTE MAILA

ALOÑA MENDI

0-2

BERIO

Aloña Mendi | Elgarresta (Idigoras, 52. min.), Losada (Lopez, 66. min.), Barrena, Astola, Garai, Camino, Arregi, Moia (Astigarraga, 70. min.), Elgarresta (Arregi, 81. min.), Garmendia (Roberto, 70. min.), Olalde.

Berio | Kortajarena, Lopetegi, Lazkano, Olaizola, Monreal, Oria, Gerons (Arteaga, 45. min.), Gartzia (Galarraga, 83. min.), Bilbao (Lopetegi, 45. min.), Garmendia, Turu (Saiz, 45. min.).

Golak: | 0-1 Iñigo Lopetegi (57. min.), 0-2 Saiz (78. min).

Epailea | Ayesa jauna. Laguntzaile lanean Ordoñez eta Ocampos aritu ziren.

Bestelakoak | Ligako lehenengo partidua izanik, jende dezente hurbildu zen taldea ikustera.

Bikain

Lehenengo zatia

Taldeak lan ona egin zuen lehenengo zatian. Baloia ondo mugitu zuten, hegaleko joko aprobeztatuta. Gol aukera onak izan zituzten, baina baloiak ez zuen atea zulatatu.

Kaskar

Emaizta

Egin zituzten gol aukerak kontuan hartuz, 0-2 galtzea baino zerbait gehiago merezi izan zuen Aloñak. Ligako lehenengo partidua akatsak zuzentzeko balio izan behar dio talde oñatiarrari.

Esandakoak

“Lehenengo partiduan taldeak egin duen lanarekin pozik nago. Aukerak egin ditugu, baina gola falta izan zaigu”.

“Bigarren zatian zelai erdiaren jabetza hartu dute donostiarrek eta partiduaren erritmoa jaitsi dute”.

AITOR ORUETA |
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA



Aloñako jokalariei gola falta izan zitzaion atzo.

JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA | JENDE DEZENTE IZAN ZEN AZKOAGAINEN

Liga hasiera kaxkarra izan du Aloñak, etxean galduta

Lehenengo zatian partidua erabakita uzteko gol aukerak izan zituzten oñatiarrek, baina baloia ez zen Beriokoen sarean sartu

Arantzazu Ezkibel

Denboraldia hasteko modu txarra izan du Aloñak: etxean 0-2 galdu zuten oñatiarrek Donostiako Berio taldearen aurka.

Partidua irabazteko meritua egin zituzten etxekoek, baina baloiak ez zuen donostiarren atea zulatzerik izan. Bai, ordea, etxekoa; birritan, gainera.

GOL AUKERA ONAK

Lehenengo zatian, Aloñako mutiak ondo kokatuta zelairatu ziren.

Atzealdean seguru aritu ziren, donostiarren aurrelariak zuloz utzi gabe. Baloia mugitzeko orduan, hegaleko barneratzeak aprobeztatuta zituzten. Hala, Unai Moiuak bere eskuetan izan zuen denboraldiko lehenengo gola egiteko aukera. Aritzek eskuin hegaletik egindako erdiraketa batean, Aloñako aurrelariak bularrarekin baloia jaitsi eta jaurtiketa atezainaren eskuetara egin zuen. Bost minutura, bigarren gol aukera izan zuen Moiuak, baina baloia ez zen sare

an sartu, eta, hala, atsedenaldira 0-0 iritsi ziren.

Bigarren zatia nahasiagoa izan zen. Beriok, Aloñaren kalterako, partiduaren erritmoa jaitsi zuen.

Aloñako jokalariek ondo aritu ziren lehenengo zatian, aukera onak sortuta

Robertok berdinketaren gola bere esku izan zuen, baina baloiak langa jo zuen

57. minutuan, kórner baten ondoren heldu zen partiduko lehenengo gola.

BI JAURTIKETA, BI GOL

Etxeko taldeak bi aldaketa egin zituen: Moia eta Garmendia kanpora eta Roberto eta Astigarraga zelaira. Aldaketa horrekin, bizitasun pixka bat irabazi zuen Aloñako aurrealdeak. Izan ere, Robertok izan zuen buruz egindako erremate batean berdinketaren gola.

Baina etxekoek pozak gutxi iraun zuen. Saizek, areaz kanpotik egindako jaurtiketa batean, bigarren gola egin zuen, eta partidua erabakita utzi zuen. Meritu handirik egin gabe, bada, Beriok bi jaurtiketa eta bi gol egin zituen. Eta futboleant, partidua irabazi nahi bada, golak egin behar dira.

PREFERENTE MAILA



JOSETXO ARNIZABAL

UDAKo Joseba eta Arkaitz adi-adi Pasaiaiko jokalariek zer egingo zain.

Bigarren zatiko jokoa eginda partidu gutxi galduko dituzte

UDA
0-1
PASAIA

UDA | Gaizka, Gonzalez (Aguado 68. min.), Joseba (Eriko 52. min.), Iturbe, Arenatza (Uzkue 81. min.), Ruben, Orue-ta, Igartua (Imanol 62. min.), Arriaga, Garai eta Espinosa (Uribetxeberria 68. min.).

Pasaia | Amorebieta, Larrea, Vidal, Apatolza, Rodriguez, Santos, Maritxalar (Abrego 45. min.), Calso, I. Pikabea (Arrieta 75. min.), J. Pikabea eta Goya (Fernandez 82. min.).

Golak: 0-1, Maritxalar.

Epailea: Silguero jauna.

Mireia Bikuña

Sentsazio horrekin geratu ziren UDAko jokalariek eta arduradunak Pasaiaen aurkako partiduaren amaieran. Bigarren zati borobila jokatu zuen UDak. Partidua goitik behera menderatu zuen zati hartan.

Pasaia lehen zatian lortutako gola berdintzeko asmotan irten ziren zelaira. Felix Recioeren taldeak lerroak aurreratu zituen eta Pasaia bere arean sartu zuten. Pasaitarrak, gainera, jokalariek bat gutxiagorekin geratu ziren, Larreak bigarren txartel horia ikusi zuen-eta.

Hala, berdinketa lortzeko aukera garbiak izan zituen UDak, haletako hiru luzapeneko minu-

tuetan: Erikok ez zuen Uribetxeberriak egindako erdiraketa bat errematatu eta Igor Arriagaren errematea eta Kepa Uzkue-ren burukada ere kanpora joan ziren. Penaltia ere eskatu zuten, Pasaia jokalariek batek baloia eskuarekin ukitu zuelako. Baina epaileak ez zuen ezer adierazi.

GOLA, LEHENENGO ZATIAN
Bigarren zatian izan zuen bizitasuna falta izan zitzaion lehen zatian. Bi taldeak erritmorik gabe atera ziren zelaira. UDak defentsan egindako huts baten lortu zuen Pasaia bere gola. Maritxalarrek egin zuen gola, eskuinetik egindako jokaladia amaituta Lehenengo zatiko 16. minutua zen.

Mondrak ez zuen zorterik izan Trintxerperen aurka

TRINTXERPE
2-0
MONDRA

Mireia Bikuña

Punturen bat lortzeko zortea falta izan zitzaion Mondrari Preferenteko lehen jardunaldian. Trintxerpek golak egin baino lehen Mondrak aukerak izan zituen markagailuan aurre hartzeko.

Trintxerpek, aldiz, zortea bere alde izan zuen bi golak egiteko orduan: lehena gol olinpikoa izan zen, 28. minutuan korner erdiraketa baten lortutakoa, eta bigarrena, zelai erditik baselina bidez sartutakoa. Gol hark erabakita utzi zuen partidua.

MONDRA, ONDO

Bost jokalariek garrantzitsu falta zituen arren, Mondrak partidu ona jokatu zuen. Markagailuan atzetik zegoenean ere joko ona egin zuen Gordobilen taldeak.

Hurrengo partidua Atxabalen jokatu du, UDaren aurka.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK	SAILKAPENA						
	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
Aretxabaleta-Pasaia 0-1							
Hernani-Martutene 1-2							
Hondarribia-Urola 0-1							
Ordizia-Mutriku 2-0							
Aurrera-Touring 2-2							
Zestoa-Anaitasuna 1-1							
Aloña Mendi-Berio 0-2							
Zarautz-Idiazabal 2-0							
Trintxerpe-Mondra 2-0							
HURRENGOAK							
Pasaia-Hernani							
Martutene-Hondarribia							
Urola-Ordizia							
Mutriku-Aurrera							
Touring-Zestoa							
Anaitasuna-Aloña Mendi							
Berio-Zarautz							
Idiazabal-Trintxerpe							
Mondra-UDA							

Ohorezko gazteak

Garaipen erosoan erdietsi zuten Mondrako gazteak

MONDRA
4-2
VASCONIA

Arantzazu Ezkibel

Liga hasiera bikaina izan dute Arrasateko gazteak. Zapatuan, ligako lehenengo jardunaldian, lau gol sartu zituzten etxeko taldeak Donostiako Vasconiari. Partidua erraz hartu zuten mendean

etxekoek; izan ere, atsedenaldirako 3-1 jarri ziren aurretik Arrasatekoak.

EPAILEA GAIZKI

Lehen zatian, etxeko jokalariek gehiago izan ziren. Atxabalpeko zelaira ondo kokatuta atera ziren eta baloiaren jabetza izan zuten, baita jokaldi politak egin ere.

Hain da hori horrela, 3-1 aurreratu ziren markagailuan. Eta atsedenaldiaren ostean, laugarren gola egitea lortu zuten. Taldeko golegileak Iker Sanchez (3) eta Aitor Iregi izan ziren. Protagonista nagusia, baina, epailea izan

zen: bigarren zatian, etxeko jokalariek bat egotzi zuen epaileak, eta Mondra hamar jokalarirekin utzi.

Orduan, Vasconiak bigarren gola egitea lortu zuen.

BESTE EMAITZAK

Ibarreko ohorezko gazte mailako beste taldeen emaitzak hauek izan ziren: Aloñak ere garaipena lortu zuen Urolaren aurka (1-2). Aretxabaletak eta Bergarak, ordea, galdu egin zuten: UDak 1-0 egin zuen Ostadarren aurka eta Bergarak Martutene taldearen aurka 2-1eko emaitza egin zuen. Liga hasi besterik ez da egin.

2. erregionala



ASTELEHENKO GOIENKARIA

ANTZUOLA FUTBOL TALDEAREN AURKEZPENA

Egubakoitzean aurkeztu zuten Antzuola futbol taldea. Denboraldi berriari begira, aurpegi berri gutxi ditu Antzuolak. Aipatzekoa entrenatzaile berria da; Andoni Azkargorta. Mondra taldean bigarren entrenatzaile lanetan ibili ostean, etxeko taldera itzuli da. Antzuolak liga datorren asteburuan hasiko du Eibartarrak taldearen aurka.

GATZAGAKO IV. MENDI BIZIKLETA | EGURALDI BIKAINAREKIN EGIN ZUTEN IRTEERA

140 parte-hartzaile, IV. mendi bizikleta irteeran

Gatzagako jaien barruan egin zen atzo mendi bizikleta irteera. 35 km-ko ibilaldia egin zuten

Parte-hartzaileen artean sariak banatu zituzten lasterketa ostean: gaztak, patxaran botilak...

Mireia Bikuña

Bizikleta-zaleen aldetik erantzun ona jaso zuen Gatzagako IV. mendi bizikleta irteerak.

Goizeko 10etan eman zitzaion hasiera mendi bizikleta irteerari. Eguraldi bikaina egiten zuen ordu hartan. Irteera puntuan 140 bizikleta-zale zeuden, Debagoieneko herri guztietatik etorritakoak. Haren ondoren, gazteen-dako irteera ere egin zuten. 25 gaztek hartu zuten parte.

IBILBIDE POLITA

35 kilometroko martxa antolatu zuten atzorako. Gatzagako plazatik abiatu ziren. Trenbidetik Hiru Erreketara jo zuten. Gure Ametsa jatetxetik Maroto aldera hartu zuten, berriro Gatzagako plazan amaitzeko.

Tropel nagusiko lehen txirindulariak 12:30ak aldera iritsi ziren Gatzagara. Parte-hartzaile gehienak sakabanaturik iritsi ziren bukaerara, eta bizikleta-zale gehienak pozik iritsi ziren. Batzuk baina, gurpilak zulatuta iritsi ziren.

Ibilbide polita zela aipatu ziguten bertan parte hartu zutenek: "Ibilbide polita da. Hasierako kilometroak gerizpean egin ditugu. Irteera orduan bero galanta egiten zuen eta gerizpea esker-tu egin dugu", azaldu zigun Luis Mari arrasatearrak.

MOKADUA HARTZEKO AUKERA

Partaide guztiek bizikletak garbitzeko aukera izan zuten, ibilaldia bukatu ondoren. Eta bizikleta-zale guztiak Gatzagara iritsi zirenean, mokadutxo hartzeko aukera izan zuten. Pilotalekuan pintxoak, edariak eta gailetak zeuden mendi martxan parte hartu zuten guztiendako. Partaideen artean giro polita sortu zen pilotaleku inguruan.

OPARI BANAKETA

Mendi bizikleta irteera zenez, ez zuten irabazlearendako saririk banatu. Bada, antolatzaile taldeak opariak banatu zituen parte-hartzaileen artean: urdaiazpikoak, gaztak, patxarara... Zozketa bidez 20 opari banatu ziren irteerari amaiera emateko.



JOSETXO ARANTZABAL

Gatzagako mendi bizikletako irteera pilotaleku inguruan egin zuten parte-hartzaileek. 140 lagun elkartu ziren.

• HONELA IKUSI ZUTEN PARTE-HARTZAILEEK



LUMA URIBESALGO |
ARRASATE

"Nik iaz ere parte hartu nuen. Ibilbide oso polita da. Gainera, gaurko beroarekin, lehenengo kilometroetako gerizpea eskertu egin dugu. Ni normalean errepideko bizikletarekin ibiltzen naiz. Baina atsegin dut mendi bizikleta irteeretan parte hartzea"



LUIS HERIZ |
ARRASATE

"Gustura nago egindako ibilbidearekin. Aitortu behar dut, hala ere, ez dudala ibilbide osoa egin; zituen 35 kilometroetatik 28 egin ditut", azaldu zigun Luisek. Ibilbidea asko gustatu zitzaion arren, malda batzuk oso gogorak direla aitortu zigun.



Capoeira

SenzalaEuskadi



GRUPO SENZALA
CAPOEIRA
MESTRE GATO

Kontaktua: www.senzalaeuskadicapoeira.info
e-maila: senzalaeuskadi@hotmail.com
telef: 625 772 295

ERAKUSTALDIA

Eskoriatzako Eparantzan
IRAILAK 15
Arratsaldeko 19:30etan

Asteburuko IKASTAROA

(irakasle brasildarrak)

Eskoriatzako Pilotalekuan
IRAILAK 16/17
11:00tatik 14:00etara

- umeak: 25 euro
- ikasle eta langabetuak: 30 euro
- langileak: 35 euro

URTE OSOKO IKASTAROA

Eskoriatzako Pilotalekuko Gimnasioan
astelehena eta asteazkena
16 urtetik beherakoak 19:00tatik 20:00etara
Helduak 20:00tatik 21:30etara

ALDATZ
taberna
Unibertsitatearen ondoan
ESKORIATZA

Otzeta
jatexea
ESKORIATZA

inkernu
taberna
ESKORIATZA

CIPRIS
taberna
ESKORIATZA

BAR ALCAZAR

bar **NAIRA**
ESKORIATZA

bedardenda

48. SAN MIGEL SARIA | 72 ZIKLISTAK HARTU ZUTEN IRTEERA OÑATIN

Esprintean irabazi zuen San Migel saria Unai Iparragirre azpeitiarrak

Azkeneko metroetara Gorka Ursuarekin batera iritsi zen Unai Iparragirre; esprint estua jokatu zuten, eta Azpeitiko txirrindulariak egin zuen denborarik onena: 1:54:11

Mireia Bikuña

Helmugatik oso gertu erabaki zen zapatuan jokaturako 48. San Migel txirrindulari proba. Olarako zuzengunera Unai Iparragirre (Lan Mobil) eta Gorka Ursua (Limpiezas Elurra) elkarrekin iritsi ziren. Esprinta luzea eta gogorra izan zen, eta Unai Iparragirre izan zen azkarrena azken metroetan. Haren atzetik gaitzako parte-hartzaileak iritsi ziren. Laugarren tokian iritsi zen helmugara Asier Peñabad bergararra, bailarakoen artean azkarrena.

76 KILOMETROKO PROBA

10:30ean hartu zuten irteera parte-hartzaile guztiek. 76 kilometroko ibilbidea egin behar zuten. Oñatitik Bergarara hartu zuten, Osintxuraino, eta handik Oñatitik pasa, Udana igo eta Legazpitik Deskargara egin zuten; Antzuolatik Oñatirako bidea hartu zuten ondoren.

Hasierako kilometrotik erasoaldiak izan ziren protagonista. Baina ez zen ihesaldirik sortu eta tropelak elkarrekin jarraitu zuten.

Udanan behera lau txirrindulariz osatutako talde batek aurrera egin zuen. Deskargan behera Limpiezas Elurra talde-

ko Gorka Ursuak ihes egin zuen. Haren atzetik Unai Iparragirre atera zen. Bi txirrindulariek elkarrekin egin zituzten probako azkeneko kilometroak.

San Migel saria amaitu ondoren sari banaketa egin zuten Olara auzoan. Helmugara iritsi ziren lehen hiru txirrindulariek jaso zituzten sariak: Unai Iparragirre (Lan Mobil), Gorka Ursua (Limpiezas Elurra) eta Urko Izagirre (Ozarreta), hain zuzen ere. Mendiko saria ere Unai Iparragirrek eskuratu zuen. Taldeko saria, azkenik, Bruesa taldeak eraman zuen.

72 PARTE-HARTZAILE

Gazte mailako txirrindulariak izan ziren protagonistak zapatuko lasterketan, baina bigarren mailako kadeteek ere hartu zuten parte. Eta Debagoieneko taldeak ere izan ziren: hain zuzen, Are-

76 kilometroko ibilbidea egin zuten gazte mailako eta kadeteen bigarren mailako ziklistek



Argazkian, saridunak. Goian Ursuaga, Iparragirre, Izagirre eta Bruesa taldeko zuzendaria. Behean, Bruesako ziklistak.

Irteera 72 txirrindularik hartu zuten; Olarako helmugara 49 iritsi ziren

txabaletako Dorletako Ama eta Bergarako Sumofic taldeetako ziklistak egon ziren Oñatin.

LEHENDAKARI TXAPELKETA

Bestalde, 19 eta 20 urteko txirrindulariak izango dira irailaren 23an Oñatin jokaturako den lasterketan. Aloña Mendi txirrindula-

ritza taldeak antolatzen duen lasterketa Lehendakari Txapelketa izango da. Bada, adin horietako txirrindulari onenak egongo dira.

Goizeko 10etan hasiko den lasterketan esku hartzen duten ziklistek 120 kilometroko ibilbidea egin beharko dute.

UNAI IPARRAGIRRE | AZPEITIA

"Esprintean ondo moldatzen naiz, baina ez nuen garaipenik espero"

Lasterketa esprintean irabazi duzu. Gustura zaude?

Egia esan, bai. Azkeneko hiru asteetan ez dut lasterketarik korritu eta nire burua oso ongi ikusi dut. Esprintean ondo moldatzen den horietakoa naiz. Oñatiko helmugako zuzengunea oso aproposa da esprint luzeak egiteko. Hala ere, aitortu behar dut ez nuela lasterketa irabazterik espero. Gorka Ursua indartsua da azkeneko metroetan, eta adi egon naiz. **76 kilometro egin dituzue. Nolako lasterketa izan da?**

Kontuan hartuta hasierako kilometrotik erasoaldiak egon direla, oso gogorra egin da. Irteeratik Bergararaino erasoaldiak izan dira nagusi. Ni ere ahalegindu naiz ihes egiten. Ihesaldi saiakera horietan egindako esfortzua bukaerako kilometroetan nabaritzen da.

San Migel probak duen ibilbidea ezagutzen zenuen?

Bai, ezagutzen nuen. Nik ditudan ezagarritarako ibilbide aproposa dela esan-



MIREIA BIKUÑA

go nuke. Azpimarratu behar dut, hala ere, Udanan eta Deskargan aldapa gogorrak daudela. Bi mendate horiek azkeneko kilometroetan igotzen dira eta ordurako nahiko nekatuta geunden. 23 txirrindulari ez dira helmugara iritsi.

ASIER PEÑABAD | BERGARA

"Lasterketa oso azkarra izan da, egondako erasoaldien ondorioz"

Deskargan behera sortu den taldean sartu zara. Garaipena eskura ikusi duzu?

Hamar txirrindulariz osatutako taldean sartu naiz. Iparragirre eta Ursuak aurrera egin dute. Atzetik gentozen zortziek ez dugu aukerarik izan garaipena lortzeko. Nik hirugarren postua esprintean galdu dut Izagirreren aurka.

Gustura, lortutako laugarren postuarekin?

Bai. Oporren ondoren korritzen dudana bigarren lasterketa izan da. Nire burua nahiko ondo ikusi dudana arren, aldapak nahiko gogorrak egin zaizkit. Oporren ondorioak dira.

Bergarako izanik, ibilbidea ondo ezagutuko duzu. Horrek abantailarik ematen al du?

Niretzat gaurko ibilbidea oso ezaguna da. Bailarako txirrindulari gehienak errepide hauetan entrenatzen gara. Baina lasterketan oso ezberdinak dira. Gaurko proba, adibidez, oso azkarra izan da. Erasoaldi asko egon da hasieratik eta horrek asko gogortu du lasterketa.



MIREIA BIKUÑA

Denboraldia amaitzeko aste gutxi falta dira. Bukatzeko gogorik ba al duzue?

Bai. Hilabete asko dira eta nekatuta gaudela. Baina denboraldia amaitzen denean pena izan ohi dugu eta gogoia izaten dugu denboraldi berria hasteko.

Iruditan



JOSETXO ARANTZABAL

Mendi irteera Arrasateko Besaide mendi taldearekin. 30 lagun elkartu ziren atzo Besaide mendi taldeak antolatutako irteeran. 25,5 kilometroko ibilaldia egin zuten mendi ibilaldian parte hartu zuten lagunek. Loiolako Santutegitik abiatu eta La Antiguako ermitaraino iritsi ziren arrasatearrak. Ibilaldia Aztirian amaitu zuten. Azaroan, Aztiria eta Arantzazu arteko bidea egingo dutela adierazi digute Arrasateko mendizaleek.



JOSETXO ARANTZABAL

Oñatiko Atzeko kaleko jaietan zinta lasterketa. 26 gazte bildu ziren egubakoitzean Atzeko kaleko jaietara hasiera emateko antolatutako zinta lasterketan. Bukaeran, opariak egon ziren parte-hartzaileentzat.



JOSETXO ARANTZABAL

Pilota Uribarriko jaietan. Arrasateko Uribarri-Erguin auzoko jaiak ospatu zituzten asteburuan. Eta domeka kirolari egokitutako eguna izan zen. Goizean pilota partiduak jokatu zituzten Gorostiza pilotalekuan. Arrasate pilota taldeko txikiak aritu ziren nor baino nor gehiago.



IBON IRASTORTZA

Herri kirolak Gatzagako. Zapatuan egin zuen erakustaldia Iparralde taldeak. Plazan, harri jasotzen, txingan, fardoekin eta gurdiekin aritu ziren, besteak beste. Jairik jai aritzen dira erakustaldiak egiten, dirua bildu eta munduko txapelketetan parte hartzeko.

Kaña zuk zeuk atera!

Kartan:
berezitasun alemanak
(ukondoa, haragi-pastela,
saltxitxak,...), ensaladak,
arrazioak eta plater
konbinatuak.

Gosariak • Garagardo karta

Terraza

Pintxo hotz eta beroak

PAULANER
MÜNCHEN

PAULANER
Bierhaus

Iparagirre 2
Bergara
Tel.: 943 53 43 68

Egunero irekita
Aste barruan 9etatik aurrera
Asteburuetan 11etatik aurrera

DANBAKA))))))

Debagoieneko II. Musika Lehiaketa

**PARTE HARTU
NAHI?**

Izena emateko azken eguna: irailak 19

INFORMAZIO GUZTIA:

www.danbaka.com

ERAKUSTALDIA | GATZAGAKO JAIETAKO BERRIKUNTZETAKO BAT IZAN ZEN

Bi metroko jauziak egin zituzten bizikletaren gainean

Gatzagan egon zen 2003. urtean munduko txapeldun izan zen Diego Barrio gasteiztarra

Aitor Badiola Espainiako txapelduna eta Aretxabaletako Markel eta Aitor ere han izan ziren

Arantzazu Ezkibel

Ikusmin handia piztu zuen Gatzagako jaietarako antolatu zuten trialsin erakustaldiak. Hala, jendea udaletxe ondoko plazatxoan pilatu zen Diego Barrio munduko junior txapelduna, Aitor Badiola Espainiako txapelduna eta Aretxabaletako Aitor Murua eta Markel Uriarte ikusteko.

BI METROKO JAUZIAK

Jon Sasiain Kultura zinegotzia aritu zen mikrofonoarekin hizlari lanetan. Lehenengo, lau kirolarien aurkezpena egin zuen eta jarraian, Aitor Murua ariketak egiten hasi zen.

Antolatzaileek metro eta erdiko edukiontzia eta egurrezko oztopoak jarri zituzten.

Muruak, lehenengo saiakeran, metro eta erdiko edukiontzia gainera jauzi egin zuen ikusleen txalo artean. Ariketa batzuetan, baina, oina lurrean jarri behar izan zuen, orekari eutsi ahal izateko.

Markel Uriarte izan zen ariketak egitera atera zen bigarren laguna. Hark, bizikleta gainean duen abileziarekin, egurrezko oztopoak gainditu behar izan zituen. Gero, metro eta erdiko jauzia eginez, edukiontzia gainera igo zen.

Azkenik, gasteiztarren ordua iritsi zen. Aitor Badiola Espainiako txapeldunak arazorik gabe igo zituen edukiontzia. Baina erakustaldiko momentu ikusgarriena Diego Barriok eginiko bi metro eta erdiko jauzia izan zen.



Diego Barriok, ikusleen gozamenerako, bi metro eta erdiko jauziak egin zituen.

Edukiontzien gainean zegoen hormigoizko zilindrora igo zen gasteiztarra, ikusleen gozamenerako. 2003. urtean zergatik izan zen munduko txapelduna argi utzi zuen Diego Barriok Leintz Gatzagan.

TXIKITAKO ZALETASUNA

“Aita beti ibili izan da bizikletaren munduan, eta azkenean nik ere zaletasun bera hartu dut”, esan zigun Barriok. Txikitan Gasteizko trialsin eskolan eman zuen izena, eta, gogor entrenatuta,

gaur den kirolaria izatera iritsi da Diego Barrio.

Amaitzeko, Markel Uriartek ikusleen parte-hartzea izan zuen. Ikusle bat lurrean etzan zen eta Aretxabaletako gazteak askotariko ariketak egin zituen.

• PARTE-HARTZAILEEK ESAN ZUTEN



DIEGO BARRIO | GASTEIZ

Barrio munduko txapelduna izan zen 2003. urtean, gazte mailan. Aurten, elite mailan, Espainiako Txapelketako hirugarren postua lortu du, baina munduko txapelketan ez du maila onik eman. “Ez naiz fin aritu munduko txapelketako proban, eta 16. postuan amaitu dut lehiaketa”, azaldu zigun.



AITOR BADIOLA | GASTEIZ

Gazte mailako Espainiako Txapelketa eskuratu berri du Badiolak: “Aurten ondo aritu naiz Espainiako Txapelketan. Hala ere, Espainiako Txapelketan egindako lanak ez dit balio izan munduko txapelketara joateko, hautatzaileak ez nau eta zerrendan sartu”, esan zigun. Bada, datorren urtean izan beharko du.



MARKEL URIARTE | ARETXABALETA

Uriartek 15 urte ditu eta kadete mailan lehiatzen da. Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun izana da Aretxabaletako gaztea: “8 urte zituenetik ari da trialsinean. Azken 7 urteak hara eta hona ari gara Markekin txapelketaz txapelketa”, azaldu digu haren amak. Leintz Gatzagan ondo aritu zen bizikleta gainean.



AITOR MURUA | ARETXABALETA

Kimu mailan (alebina) jokatzeko Aretxabaletako 12 urteko gazteak. “Gipuzkoako txapelduna naiz eta azken 3 urtetan, bigarren geratu naiz Euskadiko Txapelketan”, esan zigun Muruak. Gatzagako erakustaldian gustura ibili zen eta gaztea izan arren etorkizun handiko kirolaria dela erakutsi zuen.

BEHOBIA-DONOSTIA | NOLA PRESTATU AZALDU DUTE MUSAKOLAKO KIROL MEDIKUNTZAKO ADITUEK

Behobia-Donostia lasterketarako nola entrenatu erakutsiko dizugu

Bi hilabete falta dira Behobia-Donostia herri lasterketarako. Dagoeneko kirolariak hasi dira maratoirako entrenatzen

Arantzazu Ezkibel

Korrikalariak dagoeneko hasi dira prestatzen azaroaren 12an egingo den Behobia-Donostia herri lasterketa. Debagoieneko lagun askok hartuko dute parte Behobia-Donostia maratoi erdian. Ibarreko errepide izkinak korrikalariz josi zaizkigu.

GORPUTZA OHITU BEHAR DA

“Urtean zehar kirola egiten duenak hiru hilabete lehenago hasita nahikoa izan dezake, baina inoiz kirolik egin ez duenak denbora luzeagoa beharko du”, adierazi digute Musakolako kirol medikuntzako arduradunek. “Nik esango nuke inoiz kirolik egin ez duenak sei hilabete lehenago gutxienez hasi behar duela entrenamenduak egiten. Azken finean, 22 kilometroko lasterketa da eta hori maratoi erdia da”, gehitu digu Alberto Garaik.

Musakolako mediku zerbitzuan osasun azterketak egiten dituzte: “Hona etortzen denari aurrekin pertsonala eskatzen diogu. Nolabaiteko gaixotasunik duen edo izan duen jakiteko. Gero, osasun azterketa egiten diogu; indarra, malgutasuna, zenbaterako koipea duen eta hezurak begiratu, besteak beste. Azkenik, esfortzu proba egiten dugu. Pixkanaka, korrika ari denari, makinaren intentsitatea igotzen diogu eta muga non duen ikusten diogu”, azaldu digute.

Zintan edo bizikletan egiten diren frogetan, kirolariaren erritmoa ikusten dute, haren mugak non dauden jakiteko. Emaizta horiekin, haren ezaugarri eta helburuekin, entrenatzailearekin elkartzen dira Egia, Garai eta Uribe txabarria. Ondoren, entrenatzaileak plangintza pertsonala jarriko dio kirolariari.

ARNASKETA

Arnasa ondo hartzea oso garrantzitsua da. Hala ere, esfortzu handia egiten ari garenean, zaila izaten da sudurretik hartzea arnasa. “Kasu horietan, esfortzu handi bat egitean, ahal den moduan hartu behar da arnasa. Kontuan izan behar da haize handia behar



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Behobia-Donostia, lasterketa herrikoia da. Sentsazio txarrak izanez gero, lasterketa ustea gomendatzen digute medikuek.

dugula, eta ahotik kantitate gehiago hartzen da”, azaldu digute.

Elikadurak ere garrantzi handia du ondo entrenatzerakoan: “Teoria badakigu: hidrato asko, koipe gutxi, bi litro ur, fruta, esnekia... Eguneko elikadura zaintzen badugu, azken egunetan ez daukagu zertan ezer berezirik egin. Baina elikadura zaintzen ez badugu, azken hilabeteetan gorputza ohitu egin behar dugu”, esan digu Garaik. “Hidrato gehiago, proteina eta koipe gutxiago, fruta eta esnekiak jaten hasi behar dugu. Hidratazioak ere berebiziko garrantzia du; izan ere, entrenatzeko orduan ere, asko hidratatu beharra dago”, gehitu digu.

Osasun azterketa eta helburuen araberako entrenamendu propioa izaten da

Gorputza ohitu egin behar da kirola egitera. Elikadura ere ohitura kontua da

HIDRATOAK PASTAN BAKARRIK EZ DAUDE

Hidratoek gure elikaduraren %60 izan behar dute. Baina hidratoak ez daude pastan bakarrik. Egiak garbi azaldu digu: “Jendeak hidratoak nahi dituenean pasta jaten du, baina hidratoak beste elikagai batzuetan ere badaude, hala nola: arroza, ogia, tapioka, patata eta zerealak, besteak beste”.

Lasterketa egin aurreko gauean pasta hartzea gomendatzen digute. Hori bai, afaria ohera sartu baino hiru ordu lehenago egin beharra dago, horrela ondo lo egin eta gorputza lasaitzeko. Hurrengo egunean, gosari aberatsa egingo dugu: “Horretarako, baina, gor-

Azken egunetan, lasai entrenatu behar da, gorputza errekuiperatua egon dadin

Behobia egunean pasta pixka bat, esnekia, fruta eta zerealak gosaltzea gomendatzen da

putza ohitua izan behar dugu. Ezin dugu Behobia egunean inoiz gosalduta ez duguna jan. Hori, onerako baino gehiago kalterako izan daitekeelako. Komenigarriena da pasta edo arroz pixka bat, zerealak, ogia mermeladarekin, esnekia eta fruta hartzea”, azaldu digu Uribe txabarria. Gosaria ere lasterketa baino hiru ordu lehenago hartu behar da.

AZKENEKO ASTEAN ZER EGIN

Azkeneko astean, gorputzak ez du esfortzu handirik egin behar. Ohikoa entrenamenduak eginda izatea da; hau da, lana ondo egin edukitzea. Beraz, helburuak eta entrenamenduak beteta daude. “Entrenatzailearen arabera izaten da. Baina normalean, eguaztenera arte entrenamendu normala egin daiteke. Gero, egun eta egubakoitzean, lasaiago ibili behar da. Eta luzatze-ariketa asko egin behar dira. Hori oso garrantzitsua da”, azaldu digute. “Horrela, superkonpentsazioa deitzen dena lortzen duzu; hau da, gorputzari errekuiperatzeko denbora ematen diozu”, gehitu dute. Esan digutenez, batzuek aurreko domekan 22 kilometroak egiten dituzte eta gero, Behobia egunera errekuiperatu gabe iristen dira. Lasterketan irten aurretik, beroketak eta luzatze-ariketak egin behar dira, gorputza ohitu egin behar da.

Bada, bi hilabete gelditzen dira 2006ko Behobia-Donostia lasterketarako. Arrasateko kiroldegian, 100 eurogatik prestaketa osoa, osasun azterketa, entrenamendu pertsonala, joan-etorria autobusean Donostiara, kamiseta bat eta pulsometroaren erabilera izango dituzu. Anima zaitetz!

Berebiziko garrantzia du hidratazioak

Eguneroko elikadura zaintzean, hidratazioa ere kontuan hartu behar da. Egunero bi litro ur edatea komenigarria da.

Entrenamenduetan, 20 minutuan behin ur trago txikiak hartu behar dira; baita lasterketan ere: bost kilometroan behin dauden postuetan ura edatea beharrezkoa da.

Lasterketa egunean, autobusean, ura edaten joan behar da. Urduritasunagatik, deshidratatzeko arriskua dago. Horregatik ura edatea garrantzi handia du.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Balen, Gurutze eta German dira Inkernu tabernako postal lehiaketako irabazleak | 22
- Landa ingurunearen gaineko diaporama eta argazki erakusketa hilaren 18ra arte Bergaran | 27

Iker Barandiaranekin Danbaka musika lehiaketaz jardun dugu | 26

KIKI, KOKO ETA KURRUXKITA



JOSETXO ARANTZABAL

Kiki, Koko eta Kurruxkita pailazoak egubakoitzean Bergarako Munibe plazan egindako saioan.

PAILAZO IKUSKIZUNA | BERGARAKO MUNIBE PLAZAN EGIN ZUTEN EMANALDIA PAILAZOEN EGUBAKOITZEAN, 18:00ETAN

Hirukoteak gaztetxoek zein gurasoak atera zituen jendaurrera

'Biziaren bizia' euren aurtengo lana eskaini zuten pailazoek eta bete-bete egin zuten plaza. Musika, dantzak, kantuak eta zirkuko teknikak ezaugarri zituen bergarar askok hartu zuen parte

Goreti Elortza

Herriko haur guztiek izan zuten egubakoitz arratsaldean Kiki, Koko eta Kurruxkita pailazoek ikuskizunaz gozatzeko aukera.

1980an sortutako taldeak urte asko daramatza lan horretan eta ederki jakin zuen ume zein gurasoak poltsikoan sartzen. 18:00etan hasi zen saioa eta ordubete inguru iraun zuen. Ordurako ume eta gurasoak beteta zegoen Munibe plaza, saioa ikusteko zain.

Kiki, Koko eta Kurruxkita (Alayn, Pello eta Azuzena) pailazoek euren aurtengo lana eskaini zieten Bergarako gaztetxoek, *Biziaren bizia* izeneko saio alai. Ikuskizun horretan musikak garrantzi handia du; izan ere,

kantuak eta dantzak egin zituzten gaztetxoek laguntza eskatuz, eta Bergarako haurrek bikain erantzun zioten erronkari.

Txinako herensugea, zezenak, hankaluzak, sokatira, soka saltoa... Denetik egon zen ikusgai Jardun elkarteak antolatutako saio irekian. Umeek gustura ikusi zuten emanaldia eta amaitzean bat baino gehiago hurbildu zen pailazoek dendara, posterra eta DVDa erosteko. Eta egon zen muxuren bat eskatzeko hurbildu zenik ere.

JENDEAREN PARTE-HARTZEA

Saio hasieratik eskatu zuten pailazoek jendearen laguntza, eta izan zuten. Zezenen aurrean korrika egiteko, dantza egiteko

zein kantuan aritzeko orduan plazara hurbildutako haurrek bikain erantzun zuten. Boluntario ugari zeuden denerako eta bat baino gehiago pailazoekin jolas-

Musika izan zen elementu nagusia 'Biziaren bizia' pailazoek saioan

Jendearen erantzuna bikaina izan zen parte hartzeko orduan

tu barik gelditu zen. Hala ere, saioa amaitzean pailazoekin dantza egiteko aukera izan zuten guztiek plazan. Eta gurasoak ere ez ziren joko kanpo geratu egubakoitzeko saioan; izan ere, eurek ere hartu zuten parte ekintza batzuetan eta sokatiran ere ibili ziren. Haurrek barre ugari egin zituzten gurasoak han ikusita.

Nork bere izaerarekin Bergarako haurren algarak eragin zituzten. *Bihurria*, *malabarista* eta *jolastia* adjektiboak hartuta, *Biziaren bizia* lelopean mezu alaiak bidali zituzten euskara hutsean. Lagunekin jolastea, barre egitea zein bihotz alai izatea biziaren bizia direla argi utzi ziguten Azkona taldekoek hurbildutako ume zein helduagoi.

KIKI, KOKO ETA KURRUXKITA

ALAYN PEREZ 'KIKI' PAILAZOA

"Gure barneko umea ateratzen saiatzen gara beti"

Goreti Elortza

laz egin zituen 25 urte Azkona taldeak. Partaideak asko aldatu diren arren, Kiki da bide luzeena egin duena, taldeko bihurria. Hark egin digu berba taldeari buruz.

Noiz eta nola sortu zen taldea?

1978 aldera Trintxerpeko herrian lagun talde bat elkartu ginen, malabarak, dantzak... egiten genuen jendea. Gero, 80an Nafarroako Azkona herrira joan ginen bizi izatera familiakoak eta han hasi ginen herriko haurrentzat lehenengo ikuskizunekin.

Zeintzuk zineten kideak orduan?

Aita, ama eta bi seme ginen. Hankaluzeak, malabarismoa... egiten genituen. Oliten aritu ginen eta han hartu genuen izen ona. Geroztik asko aldatu da taldea, neu naiz familia hartatik gelditzen den bakarra...

Zirkuko teknikak erabiltzen dituzue; nolatan?

Orain dela urte asko *Bat egirik* zirkuko handirako eskaintza bat egin ziguten. Pailazoak falta zitzaizkien, euskaraz hitz egiten zutenak, eta baiezkoa eman genien. Esperientzia zoragarria izan zen, eta zirkuko teknika asko ikasi genituen han.

Zein da zuen saioetan helburu nagusia?

Partaidetzari garrantzi handia ematen diogu. Mezu politikak eta ulergarriak eskaintzen saiatzen gara eta gure barneko umea ateratzen saiatzen gara beti. Euskaraz zuzena egiteari ere ematen diogu garrantzia, umeek gurekin ikasi egiten dute-eta.

Saio asko izaten al dituzue?

Egia esan, ezin gara kexatu. Lan handia izaten dugu. Urtero ateratzen dugu obra berriren bat



GORETI ELORTZA

"Zirkuko handi baten ibili ginen eta han zirkuko teknikak ikasi genituen"

"Zaila da umeekin konektatzea, beharrezkoa da guztia entregatzea, %100 ematea"

maiatz aldean. *Sustraiak astinduz* izango da gure hurrengo lana. Ikastola batzuetan urtero egiten dugu emanaldia. Aurtengo lanarekin oso gustura gaude.

Euskal Herriatik kanpo ere aritzen al zarete?

Gehienbat Euskal Herrian aritzen gara, Nafarroa barne hartuta, noski! Errioxa aldean ere izaten gara batzuetan.

Umeak gustuko dituzu, ezta?

Bai, noski, oso gaiztoak izan daitezkeen arren... (Barre) Zaila da eurekin konektatzea, entregatzea beharrezkoa da.

• IKUSLEEK KONTATU DIGUTE...



BIKEN ETA MANEX | BERGARA

"Malabarak gustatu zaizkigu gehien eta pailazoetatik Koko, alaiena zelako"

8 urteko bergarar hauek oso ondo pasatu zuten Kiki, Koko eta Kurruxkitaren saioan. "Ez dugu parte hartu, baina gustura egon gara. Koko gustatu zait gehien, alaiena delako eta malabarismoan onena delako", adierazi zuen Bikenek. Manexek, berriz, "pixka bat aspergarria iruditu zait, baina gustatu zait", esan zigun saioa amaitu zenean.



NEREA MENDIZABAL | ANTOLATZAILEA

"Jardun elkartekook antolatu dugu"

"Urtean zehar lau bat emanaldi antolatu ditugu, baina nagusientzat. Umeentzat izan da oraingoan eta arrakasta izan duela nabari da, eta pozik nago" adierazi zigun Jarduneko kideak.



LEIRE, NEREA, ITZIAR ETA GARAZI | BERGARA

"Askok gustatu zaigu hiru pailazoen egindako saioa; gainera, jende asko irten da eurekin jolastera"


Oso pozik zegoen Bergarako neska koadrila hori saioa amaitu zenean. "Oso polita izan da eta oso ondo pasatu dugu. Koko pailazoa gustatu zaigu hiruretatik gehien, politena zelako, eta gero txinatar herensugea", esan ziguten Nereak eta Itziarrek. "Jende asko irten da eurekin jolastera, baita guraso batzuk ere, eta barre asko egin dugu", zioten 8 eta 9 urteko neskek.



Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin



ROCK | SHARON STONER, RABIA POSITIVA ETA RANDY THE BAND

Stonerra, hardcorea eta betiko punka, gaztelekuko ikasturteari hasiera emateko

Gaztelekuko zapatuko hiru taldeek maila itzela erakutsi zuten, nor berea defendatuta

J. B.

Sharon Stonerrekoak igo ziren oholtzara lehenik, talde gonbidatu modura, eta ederto aprobetxatu zuten gonbita ondoen dakitena egiteko. Lagunak bertan eta eszenatoki guztia euren elementua eta arazo barik defendatu zuten 3000 bira berria. Inork baino hobeto berotu zuten stoner egurrez gaztelekua, ondorengo taldeek ikusleak prest izan zituzten.

Eurek ere oso gustura jardun zuten plaza ezagunean berriro jotzen.

Eta Bartzelonakoek jo zuten jarraian. Urteen beteranotasunarekin, Rabia Positivakoek ez zuten denbora luzerik behar izan

Sharonek nahiko prest utzi zituen ikusleak hurrengo taldeentzat

Punk eta rock erakustaldia izan zen Suediako beteranoena, gozatzekoa

gaztelekuari neurria hartzeko. Haietako hardcoretik lehen urratsak emanda ukitu melodikoen aldeko apustuarekin egiten dute musika. Energia biziz eta amorruruzko gitarrez, letra garratz baina zuzeneko abestiak aurkeztu zituzten.

THE RANDY BAND

Azkenek ere ez zieten zapo txarrik utzi gaztelekuan ordu txikiak arte eutsi zioten musikazaleei. Suediako punk talde beteranoak ongi eutsi zion bukaerara arte. Adituek diote azken diskoa (bandaren izen berbera daramana) aspaldiko onena izan dela, eta hori erakustera etorri ziren Oñatira zapatuan. Punka, jarrera asko, zer esateko gehiago eta ederto pasatzeko gogo handiz jaialdi itxiera bikaina egin zuen laukoteak.

Saria, Balen, Gurutze eta Germanek Perutik bidalitako postalarendako

Eskoriatzako Aitzorrotz elkarteak eta Inkernu tabernak antolatutako lehiaketan 40 postal batu dituzte

Monika Belastegi

Atzo, domeka, eman zuten aditzera Eskoriatzako Aitzorrotz elkarteak eta Inkernu tabernak postal lehiaketako afari edo bazkaria nor earamango duen. Balenek, Gurutzek eta Germanek, hain justu, Perutik bidalitako postalarengatik.

40 postal jaso dituzte lehiaketaren hirugarren aldi honetan, eta antolatzaileak oso pozik zeuden, "aurreko edizioetan baino postal gehiago jaso ditugulako".

Inkernu tabernan batu ziren postal irabazlea erabakitzeko. Bakoitzari zenbaki bat jarri eta zozketa bidez erabaki zuten; izan ere, "postala bidali duten guztiek dute meritu bera", aitortu dute antolatzaileek.

GARAGARDO JAIA

Bestalde, Inkernu tabernan Mahou jaia egingo dute datorren asteburuan. Barikuan, Unai Azkarate bergararraren margolanen erakusketa irekiko dute, 17:00etan; gero, 19:00etan, Azkaiter Peloxek kontzertua egingo du tabernaren terrazan; eta 22:00etan, Mahaster Riverrek emanaldia egingo du tabernan bertan. Horrekin batera, asteburuan barrena Mahou garagardoa edaten duten guztien artean, Hondarribiko baserri turismo baten bi lagunendako asteburuko egonaldia zozkatuko dute. Gainera, Mahou garagardoa merkeago egongo dela aurreratu dute tabernako arduradunek eta edaten duten guztiek saria izango dutela.



Antolatzaileak postal irabazlea eskuan dutela.

JOSETXO ARANTZABAL

Hilabete amaieran hasiko da cante flamenko lehiaketa

Parte hartu nahi dutenek irailaren 20a bitartean eman beharko dute izena Arrasateko Al Andalus elkartearen

Jon Berezibar

Zapatuan egindako afariarekin aurkeztu zuten Arrasateko Al-Andalus elkarteak cante flamenko lehiaketa; hilaren 30ean hasiko da. Dagoeneko elkarteak hasi dira lehiaketaren lau-

garren edizioako prestaketak egiten, Euskadin egiten den bakarra eta Andaluziako kultura ezagutzera emateko helburuarekin sortu zutena. Aurten lehiaketaren finala azaroaren 4an izango da; aurretik, baina, hiru sailkapen fasetatik igaro beharko dute parte-hartzaileek, flamenko estilo askotariko abestiak kantatuta. Guztira bost lagunek hartuko dute parte finalean. Aurretik, kanporaketak irailaren 30ean eta urriaren 21ean eta 28an izango dira.

Izenematea irailaren 20a baino lehenago egin beharko da, eta

1.250 euro izango da sari nagusia. Gainera, Euskaditik aurkeztutako parte-hartzaileek leku berezia izango dute, hain zuzen ere, aukeratuko dituzten 18 abeslarietatik seik gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute etxebizitza.

SARIAK

Aipatutako lehenengo saria Kutxak emango du eta bigarrena Arrasateko Udalak, 800 eurokoa. Hirugarren eta laugarren sailkatuak ere aukeratuko dituzte, 400 eta 250 euroko sariarekin, hurrenez hurren.



Aurten laugarren urtez egingo da cante flamenko lehiaketa.

ARTXIBOA

ROCK KONTZERTUA | GATZAGAKO ANDRAMAIXETAN

Gaueko ordu txikiak arte iraun zuen rock festak Gatzagako plazan

Enboskada taldeak sei kantu berri aurkeztu zituen hurbildutako jarraitzaile eta entzuleen aurrean

Imanol Soriano

Hamaikak pasatxo hasi zen kontzertua. Eskoriatzako Arianrod taldeak ireki zuen eta Eskoriatzako musika taldeek egindako bildumako *-Lokaletako hotsak-* abestiak jo zituzten. Tartean Bob Dylanen *Knockin' on heaven's door* abestiaren bertsioa ere egin zuten. Abesti horrekin, hain justu, hasi zen herriko plazan eta inguruetan zegoen jendea eszentatik hurbiltzen.

Arrasateko 23F taldea izan zen taulara igotzen bigarrena.

Arrasatetik etorritako lagun koadrila handia izan zuten lagun emanaldian. Gitarra-jotzaileak ileorde beltza zeramala egin zuen kontzertua.

ARAZOEI AURRE EGITEN JAKIN BEHAR DA

Gitarra-jotzaileari soka apurtu, eta berria jartzen zuen bitartean, baxu-jotzaileak pare bat txiste kontatu zituen. Baina gitarra afinatu beharra ere bazegoen, eta etena gehiago ez luzatzeko, Enboskadako Arresek bere gitarra utzi zion emanaldiarekin jarraitu ahal izateko. Azkenurreko kanta gisa Platero y Tu taldearen *Juliette* abestia egin zuten, eta, agurtzeko, *26 de abril* (naziek Gernika bonbardatu zuteneko eguna).

Gatzagara hurbildu ziren arrasatearrek gehiago entzun nahi zuten eta beste abesti bat



JOSETXO ARANTZABAL

Argazkian 23F arrasatearrak emanaldiaren une batean.

eskatu arren, bis barik jaitsi ziren taulatik 23F taldekoak.

Recinto 19 talde gasteiztarren punk-rocka entzuteko aukera izen zen ondoren. Taldeak bigarren diskoa, *Dejadme Soñar*, aurkeztu zuen Gatzagan.

Rompe con condición abestiarekin zabaldu zuten emanaldia

Azkenik, Enboskada taldea igo zen taula gainera. 02:45 ziren ordurako eta hori nabaritu egin zen entzule kopuruan. Jarraitzaileek hain ongi ezagutzen

dituzten abestiez gain, arrasatearrek sei kantu berri aurkeztu zituzten -aurretik Añorgan bakarrik jotakoak-. Hurrengo emanaldia hilaren 22an egingo dute 3.60 aretoan, Arkada Social taldearen agur jaian.

Rock jaialdiak bete egin zuen Atzeko kaleko plaza egubakoitz gauean

Krimen, Drakes, Brigada Criminal eta Comando 9mm taldeak aritu ziren egubakoitz gauean Atzeko kaleko plazan

Goreti Elortza

Jende ugari batu zen egubakoitz gauean 23:00ak aldera Atzeko kaleko plazan, rock kontzertuak ikusteko. Oñatiko bi talde, Lazkaoko bat eta Madrilgo beste bat izan dira aurtengo gonbidatuak, eta ez dute hutsik egin.

Oñatiko Krimen taldea izan zen lehenengoa oholtzara igozen. Ondoren, Drakes talde oñatiarrak izan zuen bere musika erakusteko aukera. Primeran moldatu ziren bi taldeak. Kontzertuek aurrera egin ahala jende gehiago hurbildu zen plazara eta bete-bete egin zen.

LAZKAOKOA ETA MADRILGOA BIGARRIN ZATIAN

Punk-rock estiloan mugitzen diren Brigada Criminal eta Madrilgo Comando 9mm taldeek bere egin zituzten ikusleak kontzertuaren bigarren zatian. Bikain aritu ziren biak.



JOSETXO ARANTZABAL


Argazkian, Oñatiko Drakes taldea egubakoitz gaueko kontzertuan.



Eguneko
menua

Domekan
itxita

Maulanda Auzoa ESKORIATZA Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56



UDA KO ARGAZKIEN ASTELEHE

Argazki guztiak fotoblog honetan:



VENEZUELAREN EDERTASUNA. Venezuelan izan dira aurtengo abuztuan. Gauza eder ugari ikusi dute. Irudian Canaimako hondartza agertzen da, Salto del Anjel inguruan. /Argazkia: Eleder Altube /Oñati



MERIDAKO ANTZOKIA. Eguzkia sartzen ari da, Meridako (Extremadura) antzoki erromatarraren ostetik. Aurtengo abuztuan egin du argazkia oñatiar honek. /Argazkia: Felix Sanchez /Oñati



IA 4.000 METROTAN. Argentinan, Pumamarca herritik gora eginda dau den gatzagetan egin zuten argazkia, ia 4.000 metroko altueran. Leku bitxi eta ikusgarria da, argazkilaria esanetan. /Argazkia: Idurre Amozarrain /Arrasate



ETA ZEZENEA? Iaz egin zuten goiko argazkia, Lizarrako zezen-plazan. Zezenik ba ote dagoen ez dakigu, baina Kontxi eta haren bi semeak, Mikel eta Jon, ezkutatatu egin dira badaezpada. /Argazkia: Miguel Angel Etxeberria /Oñati

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago 2006ko irailaren 18ra (astelehena) arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko

bereizmen eta kalitatearekin).

- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
- Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
- Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
- Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD

batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta *jpg* formatuan.

- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, eta abar).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 25eko ASTELEHENKO GOIENKARIAN.

- Urriaren 2ko ASTELEHENKO GOIENKARIAN aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENKO GOIENKARIAREN artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

NEKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/argazkiak



ITSAS TXAKURRAREKIN JOLASEAN. Kaikoura herrian (Zeelanda Berria) egin zuten topo itsas txakurrekin. Beldur apur bat sumatzen zaio Nereari aurpegian, baina, hala ere, ausartu zen alboan jartzen. /Argazkia: Nerea Lete /Bergara



ZARAUTZ. Jone, Miren, Julene, Nora eta Paula arrasatearrak Pukas denda aurrean Niko (Logroñokoa) surf irakaslearekin. Aurtengo abuztuan egin dute argazkia. /Argazkia: Juanma Agirre /Arrasate



BIRIGARRO KUMEA. Gustura egon zen birigarro kumea Maiteren eskuetan. Edo, Maitek esandako moduan, "beldurrez ikaratuta?". Sekula ez dugu, bada, hori jakingo. /Argazkia: Maite Biain /Oñati



BEGIRADA. Guatemalan egin zuten argazkia. Egilearen esanetan, orduak eman ditzake hango herritarren begirada sakona behatzen. Begiok edertasunaren, lasaitasunaren eta bizitza gogorraren isla dira. /Argazkia: Onintza Belategi /Arrasate

Sariak



1. saria: Olympus E-500 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik. 8 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-45 mm eta 40-150 mm. / Flash eta guzti. / 2,5 pulgadako HyperCrystal LCD pantaila.



• **2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela.
• **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:



Laguntzaileak:



GURE AMETSA
JATETXEA

Abian da Goienak antolatutako Danbaka musika lehiaketaren bigarren edizioa. Ibarreko musika taldeengan pentsatutako lehiaketa da eta oraindik izena eman ez

duten taldeek irailaren 19ra arte dute aukera. Parte hartzeko baldintza guztiak *Danbaka.com* webgunean daude. Taldeek euren burua ezagutzera emateko aukera

paregabea da lehiaketa; Iker Barandiaran lehiaketaren koordinatzaileak lau hitzetan laburtu duen moduan, "Danbaka sekulako bozgorailua da musika taldeendako".

IKER BARANDIARAN | DANBAKA MUSIKA LEHIAKETAKO KOORDINATZAILEA

"Lehen edizioa eginda, igarri dugu talde batzuek kontzertu gehiago dutela"

Monika Belastegi

Bigarren edizio hau hainbat berrikuntzarekin dator.

Bai, berrikuntza ugari ditu. Batetik, ikusita diskoa grabatzen denetik kaleratu artean denbora luzea ematen dela, eta prozesu hori ahalik eta gehien aurreratzearen, pentsatu dugu diskoaren grabazioa ordaintzeaz gain, sari moduan diskoa kaleratzea ere guk egitea; eta modu horretan, gainera, lan horren promozioan eta zabalkundearen gogor eragitea. Hortaz, edizio berriko sari nagusia diskoaren grabazioa eta kaleratzea izango da. Horretarako, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen laguntza izango dugu.

Beste berrikuntza bat da bakarlariren saria ere sortu dugula. Aurreko edizioan ikusi genuen ibarreen uste baino askoz bakarlarari gehiago daudela. Izan ere, hainbatek esku hartu zuen lehenengo edizioan. Horregatik, bakarlarari gehiago ezagutzera emateko-eta, sari berezia sortu dugu haiendako.

Horrez gain, pentsatu dugu garrantzitsua dela entzuleen esku-hartzea handitzea. Horretarako, hainbat bide asmatu ditugu. Batetik, aurten Ikuslearen saria erabakitzeke SMS sistema erabiltzeaz gain, Espalioan kontzertu egunetan kaxa batzuk jarriko ditugu, sarrera erabiliaz jendeak bozkatu dezan.

20 taldek hartuko dute parte. Nola aukeratu dira? Hor ere bada berrikuntza garrantzitsurik.

Zuzenean joko duten taldeak sailkatzeko orduan, epaimahaiak 19 aukeratu zituzten. Hortik aurrera, *Danbaka.com* webgunean aurkeztutako talde guztien kantuak MP3 formatuan zintzilikatu zituzten. Hala, entzuleek lau bat egunez guztiak entzun eta zuzenean arituko den 20. taldea aukera dezaten.

Danbaka.com ere abian da. Bada, zein izan da webgune hori sortzeko arrazoia?

Aurretik ere bagenekien Debagoienean musika talde asko zeudela, baina Danbaka musika lehiaketako lehenengo edizioa antolatu genuenean konturatu ginen talde ugari zeudela eta oso oso bariatuak, gainera. Lehiaketa sortu genuen musika taldeei bultzada emateko eta gazteen dako gauzak antolatzeko. Hortaz, hainbeste talde daudela ikusi ostean erabaki genuen horren guztien berri emateko webgune baten hutsunea zegoela.


Hala ere, webguneak hainbat atal dauzka: batetik, Danbaka musika lehiaketaren gaineko albiste, oinarri, zehaztasun eta bestelako guztiak han daude eskuragarri. Lehiaketari jarraipena ere *danbaka.com*-en egingo diogu.

Horrez gain, gura duten musika talde guztiei (Debagoienekoekin hasi gara, baina kanpokoendako ere zabalik dago) eskaintza egiten diegu webgune horretan blog partikularra izan dezaten. Guk laguntza eskaintzen diegu, baina taldeek eurek kudeatzen dituzte blog horiek. Bertan, albisteak, argazkiak, bideoak eta kantuak MP3 formatuan sar ditzakete. Dagoeneko 20 taldek baino gehiagok dituzte blogak martxan.

Eta horrekin batera, musika albisteak ere sartzen ditugu. Horien artean, Debagoieneko talde,

"Sari gisa, diskoaren grabazioa ordaintzeaz gain, aurten kaleratzeaz ere arduratuko gara"

"Hemeretzi talde epaimahaiak aukeratu zituzten; 20.a, entzuleek *danbaka.com* bidez"



Iker Barandiaran.

areto eta eragileen gainekoak, eta baita ere beste leku batzuetakoak, debagoiendarrendako interesgarriak direla uste badugu. **Danbaka kamisetak ere egin dituzue. Noiz jarriko dira salgai?**

Bai. Lehenengo edizioan hainbat lagunek galdetu ziguten ea ez

"Izena ematen duten talde guztien MP3 kantuak Interneten egongo dira entzungai"

"Gure asmoa da ahalik eta musika estilo gehien ordezkatuta egotea lehiaketan"

genuen kamisetarik egin behar. Aurten Astorekin harremanetan egon gara eta urrirako kamiseta kopuru mugatua jarriko dugu salgai.

Zer da epaimahaiak baloratuko duena lehiaketarako taldeak aukeratzeko orduan?

Epaimahaiak aurtengo edizioan ere izango duen erronka handienetakoa da mota askotako musika estiloak lantzen dituen taldeak aukeratu beharko dituela. Izan ere, gure asmoa da zuzenean ahalik eta musika estilo gehien ordezkatuta egotea. Lehiaketa oso irekia da. Originaltasuna baloratuko da, baita zer-nolako abestiak konposatu dituzten; eta musika taldeek abesteko eta musika instrumentuak jotzeko duten abilezia, besteak beste. Ezin dut gehiago esan.

Animatu ibarreko musikariak lehiaketan parte hartzera...

Lehiaketa guztiak lehiaketa dira. Hau da, lehiaketa gehiene-

tan ustezko irabazleak eta beste-lakoak bereizten dira. Danbakan ere bai, baina honek baditu berezitasun batzuk taldeen partehartzeari mesede handia egiten diotenak. Adibidez, izena ematen duten talde guztien MP3 kantuak Interneten egongo dira entzun gai eta edozeinek entzun ahal izango ditu munduko edozein puntatik.

Horrez gain, zuzenean arituko diren talde guztien berri zabal emango da telebistan, irranean, prentsan eta Interneten. Hori ere sekulako bozgorailua da. Lehenengo edizioa bukatu eta gero, igarri dugu musika talde batzuk gero eta gehiago jotzen dabiltzala, eta ez bakarrik irabazle edo finalista izan zirenak. Horregatik, nik askotan esaten diet taldeei lehiaketa honetan, nahiz eta batzuk sari handiak irabazi, guztiek irabazten dutela zerbait.

Ez daukate ezer galtzeko, anima daitezela.

Kirolak eta uda, oraindik zabalik dauden bi argazki lehiaketetako gaiak

Goienaren udako argazki lehiaketan parte hartzeko epeak zabalik jarraitzen du irailaren 18ra bitartean

Leire Kortabarria

Argazkizaleek badituzte bi lehiaketa aukeran, oso gai desberdinetakoak, gainera.

Hilaren 14ra arte dago aukera Bergarako Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol argazki taldeak 16. Kirol Argazkien lehiaketan esku hartzeko. Urteetan ospea irabazi du lehiaketa horrek. Aurten ere, Euskadi osoko zaleek parte har dezakete edozein teknikarekin ateratako edo landutako argazkiekin. 40x50 cm-ko kartulinatan aurkeztu behar dira, formatu bertikalean. Bergarako udalera bidali behar dira.

Sariak honakoak dira: 180, 150 eta 120 euro eta garaikurra

lehenengo hiru onenendako, eta 90 euro eta garaikurra, Bergarako onenarendako. Argibideetarako, 943 76 30 90 telefono zenbakira dei dezakezue.

GOIENAREN LEHIAKETA

Bestetik, zenbait herritar inguratu dira egunotan Goienaren egoitzetara, Goienak antolatutako II. Udako Argazkien lehiaketaren xehetasunen berri jasotzeko. Izan ere, iaz, argazki gehienak udako oporren ostean bidali zituen jendeak, eta badirudi aurten ere askok joan berri diren oporretako argazkiak bidaliko dituztela.

Hori egin daiteke irailaren 18ra bitartean, Goienaren edozein egoitzara joanaz. E-postaz ere bidal daitezke argazkiak (argazkiak@goiena.com).

Argazkiak argitaratzen doa ASTELEHENEKO GOIENKARIA, eta honako blogean ere badaude: www.goiena.net/blogak/argazkiak. Hor daude ere oinarri guztiak. Sari bikainak daude: Olympus E-500 reflex kamera, hoteletan gaua pasatzeko txartela, eta bi lagunendako afari edo bazkari bat.

Hitzorduak



DELOREAN TALDEAK KONTZERTUA EGINGO DU SAN MARTIN JAIETAN |

Bergarako gaztetxean joko du Zarauzko laukote horrek hilaren 16an, zapatua

Txapa Irratiak antolatuta, Zarauzko Delorean taldeak kontzertua egingo du hilaren 16an, zapatua, Bergarako gaztetxean, 23:00etan. Dantzarako post-punk estiloko doinuak jotzen dituzte, disco-punk ere deitzen direnak. 2000n taldea sortu zenetik, arrakasta handia izan dute Euskal Herrian, Espai-

nian, Alemanian, Mexikon... Aurten dantzarako musikaren aldeko apustua berretsi dute *Into the plateau* delako diskoarekin.

Gau berean joko du Basque Country Pharaons taldeak. Segidan, disko-jartzaileak arituko dira goizaldera arte.

Labur

Capoeira erakustaldia egingo du Senzala Euskadik Eskoriatzan

Debagoieneko Senzala Euskadik capoeirarekin lotutako zenbait ekintza antolatu ditu datozen egunotarako Eskoriatzan. Lehenengo, Brasilgo dantza eta borroka mota horren erakustaldia egingo dute hilaren 15ean, egubakoitza, Herriko plazan, 19:30ean. Hori ikusita inor ikastera animatzen bada, izango ditu horretarako aukerak: zapatuan eta domekan, irakasle brasildar batzuek ikastaroa emango dute, eta urte osoko ikastaroan ere izena eman daiteke. Argibide gehiago, www.senzalaeuskadicapoeira.info webgunean.

Landa ingurunearen gaineko diaporama eta erakusketa Bergaran

Baserriaren inguruko diapositiba emanaldia egingo du Xabier Akiuk etzi, eguaztena, Bergarako Udal Osoko Bilkuren aretoan, 19:00etan. *Baserriaren eginkizuna gizartearen etorkizunean* izenburua du emanaldiak.

Nekazari arloarekin lotuta ere, erakusketa bat dago zabalik Bergaran ere: *Euskadi rural. Siglo XXI. Ezagutu eta eskertu* du izenburua, eta hura ere Osoko Bilkuren aretoan dago zabalik hilaren 16ra bitartean, astelehenetik zapatara.

Hilaren 18an irekiko dute Arrasaten margo ikastarorako izenemate epea

Dena gertu dago Arrasateko margo ikastaroko ikasturte berria hasteko. Hain zuzen, irailaren 25ean hasiko da. Izenematea hilaren 18tik 22ra bitartean egongo da zabalik, Monterronen, 17:00etatik 19:00etara. Irailetik ekainera arteko matrikula 120 euro da, eta gutxienezko adina, 8 urte.

Ohikoa den bezala, eskolak Monterron kultura etxeko ganbaran izango dira, eta Amaia Bengoa Arte Ederretan lizentziadunak emango ditu.

ZINEMA |

- **Poseidón** filma emango dute gaur, astelehena, Oñatin Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura etxean, 19:30ean.
- **Omagh** filma ikusteko aukera **Elgetan** Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

LEHIAKETAK |

- **Film laburren lehiaketa antolatu dute Bergaran** I. film laburren lehiaketa antolatu du Udalak, Debagoienean bizi den edozeinendako. Lanak bakarka edo taldeka aurkez daitezke irailaren 15era arte, kultura etxean. 300 eta 250 euroko sari bana dago, eta bergarar onenarendako 100 eurokoa. Argibide gehiagorako, jo www.bergara.net webgunera edo deitu 943 77 91 60 telefono zenbakira.
- **Gomendatzen Dizut... sariketa zabalik dago** Gomendatzen Dizut... lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago, eta antolatzailleen, Arrasateko eta Bergarako gazte informazio zerbitzuen esanetan, uda da parte hartzeko sasoirik onena. Edozein oporralditako gomendioak eskatzen dituzte. Argibide gehiagorako, jo, www.aizue.com blogera.

- **Udako postalen lehiaketa deitu dute Aramaion** Udako oporretako postalen lehiaketa deitu du Txirritola euskara elkarteak. Irailaren 15era arte parte har daiteke, postalak kultura etxera bidalita, Nardeaga kalera. Saria da baserri turismo baten asteburua.

MUSIKA |

- **Kepa Junkerak kontzertua egingo du Arrasaten** Kepa Junkerak *Hin* izeneko disko berria aurkeztuko du hilaren 16an, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan. Txartelak salgai daude dagoeneko Servikutxa kutxazainetan, 943 00 12 00 telefonoan edo www.kutxa.net webgunean. Bidaia-koaderno baten moduan, istorio kilikagarriak eta sentsazio bakanak biltzen ditu disko horrek.
- **3.60 aretoko egitaraua eta txartelen gaineko oharra** Hilaren 15ean, gauerdian, bideoklip emanaldia egingo dute 3.60 aretoan. Zapatuan, hilak 16, Synchronicity -The Policen tributua taldea-, Mahasiter River eta Xemark eta Aiert taldeen kontzertuak izango dira 23:00etatik aurrera. Bestetik, The Damned ikusteko sarrerak erosi dituztenei ohiko salmenta-lekuan emango diete dirua bueltan.

Bergarako San Martin jaietan, techno jaialdiak

San Martin jaietarako, techno estiloko musika emanaldiak antolatu ditu Jam aretoak. Irailaren 16an, zapatua, 22:00etan, Technimal II jaia izango da, eta Techno aretoan eta Minimal aretoan hainbat disko-jartzaile arituko dira. Bigarren jaialdia *after hours* tankerakoa izango da, hurrengo eguneko goizeko hamarretan, eta hiru disko-jartzailek girotuko dute.

ANTZERKIA |

- **Star trip antzezlan egingo du Yllana taldeak Elgetan** Ohiko umore garratzarekin eta ironiarekin, Yllana taldeak *Star trip* ikuskizuna egingo du irailaren 22an, egubakoitza, Espaloia antzokian. Sarrerak salgai daude dagoeneko antzokian bertan. Antzezlari horretako protagonistak astronauta batzuk dira, misio batekin: bizitza adimentsua aurkitzea unibertsoan... eta berau akabatzea.
- **Emetik bertso-kabareta izango da Arrasaten** *Emetik* bertso-kabareta egingo dute hilaren 22an, egubakoitza, Udaletxe plazan, 19:00etan, Emakume Txokoaren ikastaroa inauguratzeko. Onintza Enbeita, Iratxe Ibarra eta Oihane Perea bertsolariak dira protagonistak.

Eguraldia



Temperaturak behera egingo du eta tarteka zaparradak izango ditugu

Freskatu egingo du gaur, eta hori eskertzekoa da. Ostarte ugari egongo da, baina tarteka, hodei dezente eta zaparradak izango dira. Ilunabar aldera ekaitzak joko du. Bihar ere antzera mantenduko da tenperatura, baina eguraldia egonkortu egingo da. Hala eta guztiz ere, zaparradak izango dira

tarteka, batik bat goizean barrena. Eguaztenean ere berdintsu mantenduko da tenperatura. Ostarteak ugaritu egingo dira eta euria egingo du. Eguenean, nabarmen egingo du behera temperaturak, baina gutxi iraungo du horrek; izan ere, egubakoitzerako tenperaturak gora egingo du berriro ere.

Guardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 11	Corcuera	Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)
Martitzena, 12	Morales	Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65)
Eguaztena, 13	Zabala	Zaruqalde, 42-44 (943 77 16 30)
Eguena, 14	Azkoaga	Ferrerias, 1 (943 79 15 15)
Egubakoitza, 15	Corcuera	Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)

BERGARA

Astelehena, 11	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
Martitzena, 12	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Eguaztena, 13	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Eguena, 14	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Egubakoitza, 15	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)

OÑATI

Astelehena, 1	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
Martitzena, 12	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 11 22)
Eguaztena, 13	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
Eguena, 14	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 11 22)
Egubakoitza, 15	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)

ARETXABALETA

Astelehena, 1	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Martitzena, 12	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Eguaztena, 13	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Eguena, 14	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Egubakoitza, 15	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIK

OSAKIDETZA (Larrialdi)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06

Eskoriatza	943 71 44 07	Laixan / Oñati	943 71 63 11
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Txirritola / Aram.	945 44 52 66
Oñati	943 78 04 11		

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Antzuola	943 76 61 81
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	902 24 02 02

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hilttegia (Zubillaga)	943 78 15 12
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 71 21 17
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Idolaz / Antzuola	943 78 70 56
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	943 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 4	2 • 3 • 12 • 29 • 34 • 43
Osagarria: 26 Itzulketa: 3	
Martitzena, 5	1 • 10 • 17 • 28 • 32 • 40
Osagarria: 24 Itzulketa: 9	
Eguaztena, 6	6 • 8 • 9 • 31 • 40 • 45
Osagarria: 30 Itzulketa: 2	
Egubakoitza, 7	5 • 9 • 13 • 26 • 34 • 36
Osagarria: 44 Itzulketa: 1	

ONCE

Astelehena, 4	93.571
Martitzena, 5	00.355
Eguaztena, 6	82.953
Eguena, 7	05.525
Egubakoitza, 8	89.205
Kupoitzarra (017 seriea)	
Domeka 10	38.312
Kupoitzarra (010 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBA

Eguena, 7	1 • 8 • 9 • 16 • 39 • 44
Osagarria: 43 Itzulketa: 0	
Zapatua, 9	12 • 16 • 24 • 42 • 47 • 48
Osagarria: 27 Itzulketa: 9	
Domeka, 10 (Saritzarra)	6 • 8 • 14 • 12 • 56
Itzulketa: 5	

Gazte zerbitzuak

BEKAK |

• **Ikerketa beka.** Zumaiako Udala. Udalerriko euskararen ikerketa lan bat egiteko beka. Epea: azaroak 11.
• **Emakumea.** Basauriko Udala. *Emakumeen presentzia Basauriko lantegietan* izeneko ikerketa-beka. Epea: irailak 30.

EKINTZAK |

• **Donostiako antzinako liburu azoka.** Gipuzkoako Liburu Saltzaileen Gremioa. 2006ko irailaren 1etik 17ra. Azoka Gipuzkoa plazan egongo da, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

IKASTAROAK |

• **Lotura afektiboan inguruko ikastaroa.** Izenematea zabalik. Ikastaroaren iraupena: irailaren 21etik 30era,

15:00etatik 17:00etara. Lekua: Bergarako kultura etxean.
• **Neguko ikastaroak.** Donostiako Udala. Donostia Kulturaren neguko ikastaroen eskaintza 2006-2007 ikasturterako: arte plastikoak, eskulanak, arte eszenikoak, literatura, humanitateak, autoezagutza, eta beste. Epea: irailaren 11tik 22ra.
• **Langabeak.** Errenteriako Udala. Errenteriako Udalaren Lantegi Eskolako ikastaroak: igeltserotza, arotzeria eta elektrizitatea. Epea: irailak 15.

LEHIAKETAK |

• **San Martin argazki rallya.** Bergarako Pol-Pol Argazki Taldea. Edozeinek parte har dezake rallyan. Informazio gehiago 943 76 30 90 telefono zenbakian (Benito). Eguna: irailak 17.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net



Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Unai Agirre
Irailaren 8an, 6 urte. Zorionak. Etxekoak; bereziki, Naroa.



ARRASATE
Ramon Balerdi
Irailaren 9an. Zorionak, aitaita. Aner, Malen eta Naroa.



ARRASATE
Aner Iriarte
Irailaren 9an, 3 urte. Zorionak, Malen eta Naroaren partetik.



ARRASATE
Rafi Gimenez
Irailaren 14an, 25 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Lagunak.



ARRASATE
Igone Urtzelai
Irailaren 14an, 24 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Lagunak.



BERGARA
Jon Barragan
Abuztuaren 5ean, 9 urte. Aitona-amonak, gurasoak eta osaba-izebak.



BERGARA
Eneko Azkarate
Irailaren 18an, urteak. Zorionak! Ane eta Uxue.



ELGETA
Ainhoa Ugaldea
Irailaren 13an, urte bat gehiago. Zorionak eta muxu handi bat. Lagunak.



ELGETA
Ainhoa Monterroso
Irailaren 17an, 8 urte. Zorionak! Aitona-amonak eta osaba-izebak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENKO GOIENKARIaren bidez! Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederra!

Jaiotakoak



Maddi Arriaran Uribetxaberría
Oñati • Abuztuaren 15ean. Gurasoak: Esteban Arriaran (Oñati) eta Mireia Uribetxaberría (Oñati). Maddi negarrez.



Beñat Telleria Gardoki
Oñati • Abuztuaren 17an. Gurasoak: Gaizka Telleria (Oñati) eta Maria Gardoki (Oñati). Argazkian Beñat lasai-lasai.



Julen Gezalaga Esnaola
Antzuola • 3 kg. Irailaren 2an. Gurasoak: Ibon (Antzuola) eta Bihotza (Ormaiztegi). Argazkian amama Mari Karmen eta aitaita Julianekin.



Txomin Gorrotxategi Gallego
Elgeta • 3,200 kg. Irailaren 4a. Gurasoak: Samu (Elgeta) eta Susana (Durango). Argazkian Txomin gurasoekin.



Ainhoa De Lucas Rubia
Arrasate • 3,230 kg. Irailaren 6a. Gurasoak: Lourdes (Arrasate) eta Aitor (Bergara). Argazkian umea kuman.



Telmo Oleaga Errasti
Oñati • 3,360 kg. Irailaren 6a. Gurasoak: Garbiñe (Eskoriatza) eta Joxe (Oñati). Argazkian umea kuman.



Nagore Garitano Azkarate
Antzuola • 3,210 kg. Irailaren 6a. Gurasoak: Miren (Antzuola) eta Julian (Antzuola). Argazkian umea kuman.



Iraia Aragones Sanchez
Bergara • 2 kg. Irailaren 8a. Gurasoak: Esther (Bergara) eta Txema (Aretxabaleta). Argazkian Iraia kuman.



Janire Menor Hidalgo
Bergara • 3,300 kg. Irailaren 9a. Gurasoak: Edu (Bergara) eta Jesus Mari (Bergara). Argazkian umea lotan.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAn



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATI**ak egunero ematen dizu aukera hori.


Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero, zorion agurren tartea **ARRASATE IRRATI**an

FM107.7
ARRASATE IRRATI

Hildakoak

Agapito Blazquez Diaz
Bergaran, irailaren 9an. 91 urte.



ESKELAK
ASTELEHENKO GOIENKARIAN

85 euro
943 25 05 02

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7
'Uda giroan' | 11:10

Irailaren 11 Xabier Mugarzarekin gogoratuz

New Yorkeko atentatua izan zela bost urte bete dira gaur. Xabi Mugarza oñatiarra New Yorken zegoen Dorre Bikien aurkako atentatua gertatu zenean. Orduko oroitzapenak eta atentatuaren ondorioak aztergai.

Oñati Irratia

FM 107.4
'Eguerdi saioa' | 12:15

Domekako Haurren Eguneko ospakizunak

Irailaren 17an Haurren Eguna ospatuko dute Oñatin. Hori dela eta, Jesus Irizar Txutxin Oñatz dantza taldeko ordezkaria elkarrizketatuko dute. Domekako ospakizunak azalduko ditu Txutxin-ek eguerdi partean.

Euskadi Irratia

FM 104.4
'Faktoria' | 10:20

Urtegien egoera aztergai

Radio Euskadi

FM 98.2
'Boulevard' | 09:30

Irailaren 11ren inguruan saio berezia

Herri Irratia

FM 99.8
'Kalez kale' | 12:00

Zaldibian II. Mendi Astea ospatuko dute

GOITB programazioa

Astelehena, 11




Debagoieneko albisteak 20:45

Bailaran gertatutakoa jarraitzeko aukera duzue GOITBko albistegietan. Goiatz Aranek eta Julen Iriondok aurkeztuta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@k.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Erreportajea.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Klipak eta MKT saioa.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:00 Izan ziren.
- 21:15 Harmailatik: Preferenteko liga hasiera.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Gatza eta berakatza. GOITBk ekoiztutako sukaldaritza saioa.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 12



'Berbaire': gizarte eta politika gaiak 20:00

Gorka Etxabe aurkezlearekin batera, Arrate Landa, Urko Lopez, Mikel Lezamiz eta Peio Urizar izango dira solasean gaurko saioan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia
- 14:15 Klip@k.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klip@k.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Behazulo.
- 18:15 Eltze beroa.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:00 Gatza eta berakatza. GOITBk ekoiztutako sukaldaritza saioa.
- 21:15 16 mm. Amagoia Lasagabaster eta Josu Txintxurretak zuzendu eta ekoizten duten film laburren saioa
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Izan ziren.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 13



'16 mm' film laburren saioa 15:47

Amagoia Lasagabaster eta Josu Txintxurretak zuzendu eta ekoizten duten film laburren saioa ikusteko aukera arratsaldeko lehen orduan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 16 mm.
- 16:15 Klip@k.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio eta Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustrai.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:00 Izan ziren.
- 21:15 Ilunpean.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Erreportajea.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Harmailatik.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 14



Marrazki bizidunak gaztetxoendako 13:20 eta 20:15

Card Sakura, Snorkeldarrak eta Bihurkorrak marrazki bizidunekin gozatzeko aukera duzue egunero GOITBn, eguerdian eta iluntzean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Harmailatik. Julen Iriondok aurkeztu duen kirol saioa.
- 14:15 Klip@k.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustrai.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo
- 16:15 Klip@k.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:00 Gatza eta berakatza. GOITBk ekoiztutako sukaldaritza saioa.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 16 mm.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Berbaire.
- 23:45 Berriak
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 15



MKT: musikarekin gozatzeko aukera 23:15

Gaur gaueko saioan aspaldiko eta gaur egungo musikarekin gozatzeko aukera izango da. Besteak beste, rock taldeen azken bideoak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albisteak
- 17:00 Berbaire
- 17:30 Eltze beroa
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak
- 20:45 Albisteak
- 21:15 Behazulo
- 21:45 Berriak
- 22:15 Ilunpean
- 22:45 Albisteak
- 23:15 MKT musika saioa.
- 23:45 Berriak
- 00:15 Amaiera.

Kamera aurrean



"Herriko plazako saneamendua, arkupeak eta gainerako elementuak txukundu eta konpontzeko asmoa dugu"

ARRITXU OLIDEN | ARETXABALETAKO ALKATEA
Berriak, 2006-09-07




"7.000 euroko dirulaguntza batu genuen Nikaragua zein Guatemalako hezkuntza proiektuei bideratzeko"

AMAIA GOITIA | OÑATIKO BOLUNTARIOA
Berriak, 2006-09-07

'Harmailatik'

UDA eta Aloña taldeen partiduen irudiak

Astelehenean, irailaren 11n, 21:15ean eta 22:15ean, Julen Iriondok aurkeztuta



Irailaren 11a: 098 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, irailak 11, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

24 euro

2006 bukaera harte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.


Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Lurdes Otxoa Elkorobarrutia (Aretxabaleta)
- Sebastian Guridi Iñurrategi (Oñati)



Irailaren 18ko sariak



**DONOSTIAKO
AQUARIUMa**
bisitatzeko bi gonbidapen.
(saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



Hamarrekoa

KEPA JUNKERA | MUSIKARIA

"Orokorrean, oso pertsona antolatua naiz eta ez naiz despistatua"

Oihana Elortza

1. Bukatu dituzu egin gura dituzun bideoklip guztiak?

Oraindik ez. Disko berriko ia abesti bakoitzak izango du bere bideoklipa, bere historia, eta oraindik ez ditugu denak egin. New Yorken, Buenos Airesean eta Montevideon ditut kontzertuak hurrengo hilabeteetan, eta orduan aprobeztatuko dugu irudiak hartzeko.

2. Hiritarra zara? Bai, baina landa giroa ere bertatik bertara ezagutzen dut, Busturian bizi naiz-eta. Uste dut dagoeneko ez dagoela horrenbesteko alderik hiririk herrira.

3. Musikatik bizi zara, baina lehen txanponak ere musika egiten irabazi zenituen? Bai. 14 urte nituenetik jotzen dut soinua, trikitia, eta irabazi dudana diru guztia musika eginda irabazi dut. Ekonomia ikasketak egin nituen Bilbon bi urtez, baina musikagatik utzi nituen.

4. Zer maite duzu musika beste? Familia eta Euskal Herria, adibidez. Itsasoa ere asko gustatzen zait

eta baita bizikletan ibiltzea ere. Zesta-puntan jokatzeko noizean behin eta etxean lasai egotea ere asko gustatzen zait.

5. Ze kontzertu da egon zaren azkena? Emazteari eta alabari baleta gustatzen zaie eta Euskaldun egon nintzen duela gutxi balet ikuskizun batez gozatzen. Gustatu zitzaidan.

6. Erosi duzu CDrik top manta delakoan? Ez; gainera fijatu ere ez naiz egiten ze CD dituzten. Arazoa CDak saltzea baino handiagoa dela uste dut.

7. Soinuan ez ezik, beste zeretan bilatzen duzu pertsekzioa? Oso pertsona antolatua naiz orokorrean, ez naiz despistatua eta nondik nora nabilen badakidala uste dut.

8. Bilbo edo Gasteiz da Euskadiko hiriburua? Eta New York edo Washington da AEBetako? Bada, Washington. Berdina da hori. Bakoitzak aukera dezala.

9. Ikasi duzu dagoeneko euskara? Ulertu egiten dut, baina ez dut oraindik



ARGAZKI PRESS

Bilbokoa da Kepa Junkera eta Oñatin senideak ditu, amaren aldeetik. 41 urte ditu, hiru seme-alaba eta Busturiako baserri batean bizi da orain. Hantxe ditu ondo gordeta erosi eta opari egin dizkieten CD guztiak. Irailaren 16an bere lan berria aurkeztuko dio Debaqoiari Arrasateko Amaia antzokian, 20:00etan. Hiri izena du disko berriak.

ondo ikasi. Seme-alabekin gertukoagoa zait euskara, baina ondo ikastea egiteko dudana proiektuetako bat da. Ingelesa ere ez dut ondo hitz egiten, baina euskara ikasteak lehentasuna du. Badakit gauza asko ez

ditudala behar bezain ondo bizi euskaraz ez dakidalako.

10. Kendu dizute punturik? Ez. Arduratsua naiz eta zuhurtasunarekin biltzen naiz autoan.



Biharamuna

Leire Lardizabal

Jainko maitea!

Askotan pentsatu izan dut Jesukristo iraultzaile bat izan zela. Ur gainean oinez ibiltzetik urrutik, hankak lurrean jendearen alde lan egin zuen pertsona xume bat. Eta zapatuan Arantzazun egon ziren askok **Ibaretxe** ia Jesukristoren pareko dutela iruditu zitzaidan. Hango tronpetari, txistulari, banda eta parafernalia neurritz kanpokoa iruditu zitzaidan. Jendeak mesiasa heldu zenean txalo artean hartu zuen, eta guk presoak etxeratzeko eskatu eta gaur 36 egon gose greban bete dituen **Iñaki de Juana** euskal presoari erauzitako askatasuna aldarrikatu genuen.

Bakarren batek geu gurutziltzatzeko gogoak ere adierazi zituen; beti traban gaudela eta gu jasateaz nazkatuta zegoela bota zigun. "Gentuza" eta "pistoleros" ere deitu gintuen espantean batek. Tira, geu ere sei mende luze gure eskubideen zapalkuntza pairatzeaz nazkatuta gaude, eta hemen traba egiten duena arazoa ikusi nahi ez duen jendea da. Neu ez naiz elizkoia, eta Arantzazuri ezer eskatzeko asmorik ez nuen arren, neuk ere kokoteraino nagoela esan nahi nion lehendakariari, baita han zeuden gaitzontze guztiei ere.

Ez genuen miraririk eskatu, gure herriaren egunerokotasunak kalbario bat izaten jarrai ez dezan beraien lana ganoraz egin dezaten besterik ez genien galdegin herritarren zerbitzura lan egin beharko luketen agintariei. Edo zeruari begira jarrita pentsatzen ote dute soluzioa bilatzea? Iñaki de Juana etxera!

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZA

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena + **KODEA**

1,2,3,4... Real!!! | **REAL**
Alboka | **ALBOKA**
Athletic luep!! | **IEUP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu... Aitarek ta semea... | **AITAREN**
Hartu... Ansar | **ANSAR**
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu... Miamoi! | **MIAMOL**
Independentzia! | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
Milazul (pilotak) | **MILAZU**
Suprinua | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALAPA**
Txanbela | **TXANBERA**
Txoort | **TXOTX**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

DEPOR.ZENBA. OSAUNA.ZENBA.
ZENBAKIA ZENBAKIA

ANOETA1 MENDIZ
BELAK ZORIB
IKURRIB POPATIK1
AZKORAK ADARIAK

ZORIR ZORIR KALABERA1 POPATIK2
EGUZKILORE3 ELORAN

TOPA TITULUA MUSKARIA SATANAS
ARRANAK IDIAK

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiritu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jaitziera bakarrik ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistema altxa ematea doan dira.
* Euskaltelefona: 900 94 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-ra. / * Movistar: deitu 809-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.